Goierritarra
255. zenbakia
2004-2-13



# Mutiloa eraikitzen

# Ordizia:

## Plan Estrategikoa 2007

## Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia






BEROGAS

BEROGAR

ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK

vegasa

BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK




ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

## Goierritarra

**HAMABOSTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Goierritarrak Kultur Elkartea
**Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)**
**124 posta-kutxa ORDIZIA**
**Tfnoa: 943 88 96 12**
**Faxa: 943 88 27 19**
**Posta elektronikoa:**
**goierritarra@topagunea.com**

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre
**Maketazioa:** Mikel Albisu
**Publizitatea:** Argider Mujika

**Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Aitziber Murua, Ion Muñoa, Iñaki Ugalde, Jexux Aizpurua eta Landarlan.
**Azaleko argazkia:** Lurdes Intxausti.

**Fotokonposizio eta maketazioa:**
**Goierritarra**
**Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
**Tirada:** 7.000 ale
**SSN:** 1132-0907
**Lege gordailua:** SS-926/89
**Frankeo kontzertatua:** 37/76


*GOIERRITARRAk ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.*

*Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta* ***GOIERRIKO UDALEK*** *diruz lagundutako aldizkaria*




# Arkumearen eguna ospatu zen otsailaren 7an Ordizian

## *Argi Berri elkarteak irabazi zuen arkume erre lehiaketa*

Euskal labeldun arkumea izan zen protagonista otsailaren 7an Ordizian. Arkumea labean erreta prestatu behar izan zuten Ordizian elkartu ziren 13 elkarte gastronomikok. Ordiziako Boxing, Itxaropena, Txapel Gorri, Argi Berri, Jai Alai, Larrun Arri, Azari, Mendizalek eta Irriki, Beasaingo Murumendi eta Donostiako Loiolotarra eta Euskal Giroa elkarteek hartu zuten parte lehiaketan. Guztien lana neurtzen, epaimahaian beste hauek aritu ziren: Martin Berasategi sukaldaria, Alberto Elorza (Arantzazuko Zelai-Zabal jatetxeko sukaldaria), Josetxo Lizarreta (Irizar sukaldaritza eskolako irakaslea), Pello Garcia Amiano gastronomoa, Josetxo Fagoaga (Sobremesa aldizkariko kazetaria), Patxi Ruiz pilotaria eta Nikolas Segurola artzaina.

Epaimahaiaren arabera, lehenengo bi sariak Ordiziako bi elkartek lortu zituzten: Argi Berrik eta Larrun Arrik. Hirugarren saria Donostiako Euskal Giroa elkartearentzat izan zen.

Lehiaketan prestatutako arkumeak, pintxotan saldu zituzten, eta Alzheimer gaixotasuna duten gaixoentzat izan zen bertan bildutako dirua. Ondoren, eguerdian, 200 lagunentzako bazkaria izan zen pilotalekuan.

Arkumeari garrantzia eman nahi izan zaio ekimen honekin, *"produktu handi bat baitaukagu"*. Ziklo naturalari jarraituz, oraintxe da arkumeren sasoirik onena, labean erreta jateko sasoirik onena alegia. Gabonak pasatu ondoren jaiotzen dira arkumeak eta orain amaren esneaz soilik elikatzen dira.

Aurten izan du lehenengo eguna arkumeak Ordizian, baina aurrera begira ere, gehiago izango omen dira.

**Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria eta Espainia: | urtean 12 euro |
| Ipar Euskal Herria eta Europa: | urtean 24 euro |
| Europaz kanpo: | urtean 36 euro |




## Udaltalde 21 lanean hasi da

Otsailaren 3an bildu zen Goiekin Goierriko Udaltalde 21 lantaldea. Agenda 21 garatzea helburua duen lantaldea. Herritarren parte hartzearekin herri bakoitzean ingurumena etengabe hobetzeko bidean aurrera egiteko udalerriek erabiltzen duten metodoa da Agenda 21. Orain herri bakoitzaren eta aldi berean eskualdearen argazkia egingo dute. Hau da, egoeraren diagnosia, ondoren ekintza planak egiten hasteko. Guztiaren helburua, garapen eramangarriaren bidetik planetaren suntsipena eragotzi lezaketen politika ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak hartzea da.

## Emakundeko Txaro Arteaga EAJko zinegotziekin

Urtarrilaren 31n, Lazkaon elkartu ziren Emakundeko zuzendaria den Txaro Arteaga eta Gipuzkoako udaletako EAJ alderdiko emakumezkoak.



## Odolkiaren kofrade berriak

Otsailaren 5ean Beasaingo Odolkiaren Kofradiak bere egun nagusia ospatu zuen. Euskal Herriko txoko ezberdinetako kofradiekin eta herritarrekin ospatu zuten eguna. Honela, ekitaldirik nagusiena, ohorezko kofrade berriak izendatzearena alegia, meza nagusiaren ondoren egin zen, San Martin plazan. Hiru izan ziren odolkiaren kofrade berriak izendatu zituztenak: herriko Aurtzaka dantza taldea eta Roberto Ruiz sukaldaria eta Pello Garcia Amiano gastronomoa. Garai honetan ohikoa ez bada ere, eguzkiaren beroa protagonista izan zen Loinazko San Martin egunean. Argazkian kofrade berriak Kepa Loidiren odolkia dastatzen.

## Igartubeiti baserrira bisita birtuala, Zumarragako ospitalean

Ezkio-Itsasoko Igartubeitia baserrira bisita birtuala egiteko programa, Zumarragako ospitalean dago apirilaren 7ra bitartean. Ospitaleko hitzaldi aretoan dago kokatua. Foru Aldundian eta Miramongo Zientzia Museoan izandako arrakastaren ondoren, Zumarragako ospitalari iritsi zaio txanda.

berriz aranburu
ERROPADENDA
Nagusia, 8 ☎ 943 88 04 53 BEASAIN

GERTU abokatuak
AHOLKULARITZA JURIDIKOA
ENPRESA ZERBITZUAK
ASEGURUAK
BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com
Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33




## Marronen ikusentzunezko berria: Bizitzaren bidea: Gasherbrum II

Joxe Ramon Agirre 'Marron'-ek, ikusentzunezko berria aurkeztu zuen urtarrilaren 30ean Donostian: 'Bizitzaren bidea: Gasherbrum II'. Ura metafora bezala erabiltzen du lan honetan ataundarrak. *"Lan honetan, urak du sarrerako protagonismoa. Bere ibilbideak, elur izoztua urtzean sortzetik, ibai sendo eta heldu bat izan bitartean, bizitako eraldaketa horiek bere izaera propioa lantzera daramate. Paradoxa hau gu gizon-emakumeon isla hartuko dugu, jaiotzetik bizitzan zehar sortzen zaizkigun bihurguneak eta oztopoak duten eragina adierazteko"*, dio 'Marron'-ek.

Honela, *"urak goitik behera egindako bide berbera jarraituz, guk behetik gorako bideari ekingo diogu. Beste helburu batekin: uraren sorleku horretan dagoen gailurrera iristeko asmoz, Gasherbrum II mendira. Igoera honek, pausoz pauso gainditutako zailtasunak, nekeak eta pozak gailurra lortu ondorengo hegalaldian amaitzen dira, sakonean, gure bizitzaren bideari jarraitzeko asmoz"*, deskribatu du ataundarrak ikusentzunezkoa.

Ikusentzunezkoaren gidoia Pako Aristi idazleak egin du. Ahotsa berriz, 'Marron'-ek berak ere jarri du, Kristina Eizmendi eta Mikel Mendizabalekin batera. 45 minutuko lana da.

## Zumalakarregi museoa: 'XIX. mendea karikaturetan: umorea, distortsioa eta kritika soziala'

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta aztertzeko erreferentzia zentroak, 'XIX. mendea karikaturetan. Umorea, distortsioa eta kritika soziala' erakusketa prestatu du. Donostiako Koldo Mitxelena Ganbara erakustokian dago ikusgai, martxoaren 13ra bitartean. Erakusketak katalogo eta interneten erakusketa birtuala ere baditu. *"Karikatura genero bezala, XIX. mendean garatu eta hedatu zen, prentsaren difusio eta zabalpenarekin. Hala, karikaturagilea, irudia erabiliz, garai hartan irakurtzen eta idazten ez zekien publikoaren gehiengoarengana iritsiko den kazetari bihurtu zen. Karikaturaren papera funtsezkoa izan zen, mintzaira herritar eta ulergarria erabiltzeko gai izan zen baliabide bakar gisa"*.

## 'Egunkariaren itxieraren kontakizuna' Lorea Agirreren eskutik

2003. urteko otsailaren 20an Juan Del Olmo epaileak Euskaldunon Egunkaria itxi zueneko istorioen kontakizuna egin du Lorea Agirre beasaindarrak eta Berriako kazetariak. Liburuaren hitzaurrea beste goierritar batek egin du, Joxe Azurmendi zegamar filosofoak.

## Asier Zabaleta dantzariaren azken lana

Ezkio-Itsason jaiotako dantzari honek, dantzaren ohiko ikuspegia hautsiz, bere izaeraren alderdi gaitzesgarrienen inguruko emanaldia osatu du, dantza, hitza eta bideo-irudiak uztartuta. 'Ego-tik' izena eman dio bere lanari. Bilbon aurkeztu zuen emanaldia. Genavako Alias taldean dabil ezkiotarra. Dantza garaikidea egin du Zabaletak.

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak
☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

GENERALI
Aseguroak
IÑAKI ARIN BAZTARRIKA
Oriako Pasealekua,20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

## Bergarako proposamenaren inguruan

Jada igaro da hilabete, Ezker Abertzaleko ordezkariek, Espainiako hauteskundeen aurrean autodeterminazioaren aldeko indar guztien artean kandidatura bakarra osatzeko Proposamena burutu zutenetik.

Estatu zapaltzaileen izaera faxista gordintasun osoz azaltzen ari den une honetan, ez dago jokoan, gure nazioaren eredua, Euskal Herriaren etorkizuna, Euskal Herriaren existentzia bera da, jokoan dagoena.

Iritsi da garaia, nazio bat garela erakusteko eta eskubide guztiak dagozkigula aldarrikatzeko.

Espainiako hauteskundeek aukera paregabea eskaintzen digute zentzu honetan lan egiteko, gainera urrats hau emanez bakea eta demokrazia askoz ere hurbilago izango genituzke.

Bidegurutze berri honetan alderdi autonomisten (PNV, EA eta Aralar) jarrera mixerablea izan da, beste behin ere alderdi interesak herriaren aurretik ipini dituztelako.

Berriro ere, gatazka gainditzeko bidean, ezinbesteko tresna izango den euskal ordezkaritza gorena, bihurtu litzatekeen hautes kandidaturari muzin egin diote.

Azken batean, beraien helburu bakarra herriaren askatasun egarria, alderdiaren mesedetan erabiltzea besterik ez delako; Euskal Herria suntsitu eta zatitzeko sortutako estatutoa berritzeko apustua indartuz.

Hala ere, Ezker Abertzaleak elkarlanerako bere proposamena mantenduko du, bai orain eta bai martxoaren 14tik aurrera ere. Autodeterminazioaren bidean urrats eraginkorrak eman nahi ditugunok ezinbestean bidean topatuko gara.

*Axular Barandiaran*

*(Goierriko Ezker Abertzaleko kidea)*

## Lazkaoko Rwanda taldearen izenean, eskerrik asko

Rwanda taldearen izenean, pasa diren gabonetan 'Hirugarren mundua ezagutzen - beste mundu bat posible da' lemapean antolatu diren ekintzetan eskaini diguzun laguntza eskertu asmoz zuzentzen gara zugana, zure lankidetzari esker lazkaotarrengana iristeko aukera eman baitiguzu.

Eskerrak ematearekin batera jardunaldi hauen balantzea ere agertu nahi genizuke, hain zuzen ere berriro ere zure lankidetzari esker ahalik eta zabalkunde handiena emate arren.

2003 urteko gabonetan antolatu diren jarduerak bere V. ekitaldira iritsi dira eta Rwanda taldeak egiten dugun balorazioa positiboa da, bost urte ondoren herritarrengan konsolidatutako ekintza bat bezala ikusten dugu. Ondorioz, antolatu den argazki erakusketa eta bidezko merkataritzako produktuen salmentan izan diren lazkaotarrak gora egin du nabarmen eta badirudi gabonetara iristean herritar askorentzat ekitaldi hauek zita bihurtu direla. Ondorioz jaso den diru kopuruak ere gora egin du, gero agertuko dugun bezala.

Iazko urteko ekitaldietan haurrentzat zuzendutako ekintzekin hasi ondoren, aurtengoan jarraipena eman diogu, bere harrera ona ikusirik, aurtengoan izan den bezala.

Haur eta gazteen arteko ekintzetan, aurtengo urtean aipagarri da San Benito Ikastolako Xaur antzerki taldeak eta 4. eta 5. mailako ikasleek eskainitako jaialdi ederra. Ikasle hauek Giharako (Rwanda) neska mutikoekin elkartasuna adierazi zuten beraien lan eta esfortzuarekin. Eskertzekoa dudarik gabe eta garrantzitsua beraien izakeran.

Balantze ekonomikoa egin aurretik gogoratu behar da ekitaldi hauetan bildutako dirulaguntza Giharako kaleko umeen eskolara bideratuko dela. Rwandako herrixka horretan hainbat arrazoi eta arazogatik eskolaratzeko aukerarik gabe gelditu eta kaleko ume bihurtzeko arriskuan dauden neska-mutikoei beste irtenbide hobeago bat eskaintzeko erabiliko da.

Ekitaldi hauetan guztira irabazi garbia 1.893 eurotakoa izan da. Kopuru hau da Leonardo Esnaolaren bidez Giharako kaleko umeen txokora bideratuko dena.

Irabazi honetan batetik enpresa laguntzaileek emandako dirulaguntzak daude, beste batetik ekitaldietan eta erakusketan lazkaotarrek emaniko borondatezko laguntzak.

Datorren martxoaren 5ean Rwanda Taldearen 2003. urteko Memoriaren aurkezpena egingo dugu, bertan urtean zehar buruturiko proiektuen berri zehatza emango dugularik.

Amaitzeko, ekitaldi hauetan laguntzaile izan diren guztiei eskerrak ematea besterik ez da gelditzen. Lazkaoko Udalarekin batera, Kutxa, Azkar, Errotaundi eta Euskadiko Kutxa aipatu behar dira, eta nola ez, ekitaldiak antolatzen lagundu duten guztiei; San Benito ikastolako ikasle eta irakasleak, Xaur antzerki taldea, Sendotzako taldea eta amaitzeko ekitaldietan izan diren lazkaotar guztiei.

*Izaro Gurrutxaga*

*(Rwanda taldearen izenean)*

kutxa

gizarte ekintza

# jakintzaikastola

2urtetik18raibilbideatsegineta aberatsa



- Heziketa euskalduna eta eleanitza
- Europan saritutako proiektuak
- Kalitatezko hezkuntza
- Emaitza bikainak
- Irakasleria iraunkorra eta konprometitua
- Haurtzaindegia
- Jangela
- Garraioa

Altamira auzoa z/g - ORDIZIA

☎ 943 16 05 40 - 943 16 07 90

ordizia@ikastola.net

Euskadi 2002

jakintzaikastola elkarrekinegingodugu.zatoz!



SAN BENITO IKASTOLA

Euskadi 2003

PARTAIDE Ikastolak

Ikastolen Elkartea

## ESKAINTEA

- *D ereduko ikastetxea*
- *Eleanitza*
- *Hezkuntza integrala*
- *0-18 urte bitarteko hezkuntza (HH, LH, DBH, Batxilergoa)*

## ZERBITZUAK

- *Jantokia*
- *Ludoteka*
- *Hizkuntza Eskola*
- *Trinity College London*
- *Antzerki tailera*
- *Guraso eskola*
- *Garraioa*
- *Kanguroak*
- *Ingeles udalekuak*
- *Musika eta Trikitixa eskola*
- *Abesbatzak*
- *Kirolak*

**Euskadi enparantza z/g 20210 LAZKAO**

**www.sanbenitoikastola.com e-mail: lazkao@ikastola.net telefonoa: 943880800**

LA SALLE SAN JOSE IKASTETXEA · BEASAIN

## LA SALLE SAN JOSE IKASTETXEA

*1909 ezkerotik Herriaren zerbitzuan*

Bai Euskarari Ziurtagiria bai Bidean

### EUSKAL KULTURA ETA HIZKUNTZAN SUSTRAITUA

- "BAI EUSKARARI" akordioan parte hartzailea
- Euskal Herriko jaiak eta tradizioak bermatuz

Eguneroko ekinean

### LA SALLETAR ESTILOA

- Kristau eskola
- Frogaturiko pedagogi esperientzia
- Berritzaileak

Ingelesa 4 urtetik aurrera
ULISES, OPTIMIS, CREA, IDEAL, FENIX...

**telf.** 943 88 01 39

jangela · eskola garraioa · Hautzaindegi zerbitzua

# Ekonomia eta ingurumena

Gaur egungo sistema ekonomikoa eragin-kortasun eskasekoa eta jasanezina dela frogatzen duten adierazle asko dago: munduko populazioaren gehiengoaren oinarrizko premiak ez ditu asetzen, natur baliabideak agortzen ditu eta sistema ekologikoak hondatu.

Ekonomia eredu honek tradizionalki onartzen zen naturarenganako errespetoa baztertu egin zuen, natura eta ekonomia banandu eta ekonomiaren gidaritza balizko merkatu libre autoerregulatuaren esku utzi, mugarik gabeko haziera lortzeko. Haziera honetan oinarritzen da sistema kapitalista, hazierarik gabe ezin baitu iraun.

Aipatutako merkatu horrek natur baliabideak merkantzia hutsak balira bezala erabiltzen ditu, planeta honetako bizitzaren oinarri diren baldintza ekologikoak arriskuan jartzera iritsiz. Ingurumen kalte hauek bistan geratzen hasi zirenetik zenbait neurri jarri dira martxan natura ez hondatzeko, baina oso arrakasta txikiarekin, indarrean jarri nahi izan diren arauak nola edo hala babestu nahi den merkatu librearen kontra baitoaz.

Ekonomia ortodoxoak ingurumen egoera jasanezina bihurtu dela ikusi duenean, egin beharreko aldaketaren kontrakoa egitea erabaki du: ingurumena ekonomian sartzen saiatu da ekonomia ingurumenean sartu ordez. Egoera jasanezin hori zuzentzeko zenbait aldaketa proposatu ditu, baino sistema ekonomikoaren lehengo printzipioak zalantzan jarri gabe. Merkatu libreak baliabideak ondo esleitzen dituela esaten jarraitzen du, baino aitortzen du ingurumen esparruan arazoak sortzen dituela, eta hori dela eta, zera dio, ingurumen kalteak, hau da, hondatutako natur-ondareak ere dirutan baloratu behar direla eta prezioei gehitu, merkatua erabat eraginkorra izan dadin. Bainan, nola baloratu dirutan ingurumen kalteak? Nola jarri prezioa natur-ondareari?

> **"Ekonomia ortodoxoak ingurumen egoera jasanezina bihurtu dela ikusi duenean, egin beharreko aldaketaren kontrakoa egitea erabaki du"**

Adibidez, gaurko sistema ekonomioak kutsadurari buruz duen ustea ez dator bat kutsadura fisikoarekin, hau ingurumenarentzako arrotzak diren sustantziak agertzen direnean ematen baita. Baina, praktikan zer gertatzen da? Ba merkatuarentzako ez dagoela kutsadurarik arik eta administrazioak onartu daitezkeen neurriak ezarri bitartean, eta muga hori gaindituakoan bakarrik agertzen dela produktuen prezioei ingurumen kalteen diruzko balioa gehitu beharra. Eta askotan gertatu da handik urte batzutara ikusi dela administrazioak lehendik jarrita zeuzkan neurriak estutu beharra.

Natur-ondarea baloratzeko bere kontsumoarekin asetako premia kontuan hartzen da. Bainan nik nahi badut natur-ondare hori etorkizunean ere eskuragarri egotea, hori era jasangarrian kontsumitzetik bakarrik lortuko da, eta gerorako gordetze honek ere bere balioa du. Gainera, badago jende bat natur-ondare bat asko baloratzeagatik bere erabilpenari uko egiteko prest dagoena , uste duelako ondare hori ez erabiltzea dela bera mantentzeko era bakarra. Eta ez da ahaztu behar izaki bizidunek oreka ekologikoan parte hartzeagatik duten balioa. Jarri geniezaieke preziorik balio guzti hauei? Ezetz uste dut.

Nere ustez erabaki ekonomiko bat hartu behar denean irizpide desberdin asko hartu behar dira kontuan, eta denak ez dute izan behar diruzko balioa dutenak. Baso bat han dagoen egurra baino gehiago da, lurzorua etxeak eraikitzeko espazioa baino gehiago eta ibaia daraman ura baino gehiago. Hau onartu bitartean ez da ingurumenaren egoera hobetzen hasiko.

***Joxan Auzmendi***

**_Landar Lan taldeak egindako orrialdea_**

***Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44***

## JAKIN BEHARRKEOAK

✔ **Munduan mila milioi pertsona bizi dira eguneko euro bat baino gutxiagorekin,** munduko populazioaren erdia, berriz, eguneko 2 euro baino gutxiagorekin. Bien bitartean munduko %14 aberatsenak dauka munduko aberastasunaren %75. 1960ko hamarkadan munduko %20 aberatsenak %20 pobreenak baino 30 aldiz gehiago zeukaten, orain, berriz, 74 aldiz gehiago. 54 herrialdeen per capita errenta 1990ekoa baino baxuagoa da orain, 34tan bizi-itxaropenak behera egin du, 21etan jende gehiago dago gosea pasatzen eta 14tan geroz eta ume gehiago hiltzen da bost urte bete baino lehen. Lotsagarria.

✔ **Transgenikorik gabeko lurraldeak:** Orain dela gutxi, Transgenikorik gabeko lurralde moduan onartuak izatea eskatu dute Europako hamar lurraldek, Euskal Autonomia Erkidegoa, horien artean izanik. Besteak hauek dira: Frantziatik Aquitania eta Limousin, Austriatik Austria Garaia eta Salzburgo, Italiatik Marches eta Toscana, Britainia Handitik Gales, Greziatik Tracia-Rodopi eta Alemaniatik Schleswig-Holstein.

Gainera hiritar plataformak sortzen ari dira Italiako koalizioa bezala: 'GEOtatik aske', nekazari, elikadura industria eta banatzaile, ingurumenaren aldeko ekintzaile eta kontsumitzaileak osaturik, Italian GEOtatik aske izango den nekazal eta elikadura eredua sortzearen alde.

## Iñaki Ugalde Mutiloako alkatea:

# "Etxebizitzak eraikiz jendea gazteari aukera eman nahi diogu"



**Aramarekin ekin genion Goierriko lau herri txikiei eskaini genien tartea. Oraingoa Mutiloaren txanda da. Iñaki Ugalde alkateak kontatu dizkigu Mutiloari bizirik eusteko dituzten asmoak eta proiektuak.**

Herri txiki gehienen kasuan bezala, Mutiloak ere etxebizitzak egin eta batez ere jende gaztea erakarri nahi du, herriaren geroa ziurtatzeko. Iñaki Ugalde alkateak zehaztu digunez, *"gehienbat etxebizitzen apustua egin dugu. Udalaren jabegoko bi lur eremu urbanizatu eta etxeak egin ditugu eta egingo ditugu. Lehenengo fasean, pilotaleku ondokoa, bukatuta dago eta etxeak beteta daude. Orain, bigarren fase batean, hilerri azpiko zelaian, jende gaztearentzat, etxebizitza merkexeagoak egin nahi izan ditugu. Alde batetik, unifamiliarrak egingo dira eta atzean, 2-3-4 logelako etxebizitzak. Jende gaztea erakarri nahi dugu. Lehentasuna herritarrek izango dute, herri mailan egingo da deialdia"*.

Herritarrak herrian bertan gelditzea eta kanpotarrak herrira erakartzea dute helburu. Ingurunea, lasaitasuna, bakea eta edonondik gertu egotea dira Mutiloaren aldeko propagandarik onena Ugalderen esanetan. Jendeak herri txikietara joateko duen joera aprobetxatu nahi dute mutiloarrek.

Dagoeneko eraiki diren etxeetara kanpotarrak etorri dira. Herrian jende gehiago izateak, *"zerbitzu gehiago izatea eskatzen du. Lehen dauzkagunei eutsi eta ahal baldin bada gehitu, eta beste batzuk sortu. Eskolaz hitz egitea, agian, oraindik ezinezko da, baina haurtzaindegiak-eta badaude, nekazal guneetan bultzatzen ari diren haurtzaindegiak adibidez"*.

### Herria txukundu

Aspaldi Mutilora joan ez denak erraz nabarituko du Mutiloan egin diren aldaketak. Pilotalekua, haur jolas parkea, errekaren bazterreko aisi gunea, erreka bazterraren beraren txukuntzea...

Herri kaskoaren txukuntzea ere proiektuen artean dago, beti ere herria erakargarriago egiteko. *"Elizaren buelta horrek behar du txukuntze bat. Proiektuen artean dago. Plaza ingurua jantzi, ostatuaren berritzea ere asmoen artean daude"*, zehaztu digu alkateak. Horrelako herri txikietan ostatuak izaten duen garrantzia azpimarratu du mutiloarrak. *"Ezinbestekoa da herri txikietan. Egunero tabernaren inguruan elkartzen den koadrila bat badago eta asteburuetan ere ostatuaren inguruan elkartzen da jendea"*.

Ostatua harremanetarako bilgune izateaz gain, elkartea ere badago Mutiloan. Festa Batzordea da herritarrak biltzen dituen beste aitzakia bat. *"Urte dezentean, ondo samar funtzionatzen duen batzordea da"*, adierazi digu Ugaldek. Orain, haur eta gaztetxoen bilgune izan nahi duen ludoteka ere sortu dute Kultur etxean. Asteazkenetan eta larunbatetan biltzen dira. *"Hain adin ezberdinetako haurrak izanik eta eskolara Segurara joanda, askotan elkarren artean loturarik ez zegoela ikusten zen. Garrantzitsua da haurren artean harremanak sendotzea, hortik gu-*


ZALBIDE
TOLARE SAGARDOTEGIA
Arraiak parrilan
✆ 943 65 21 76 ABALTZISKETA

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea
Eguneroko menua eguerdi eta gauetan larunbatetan ere bai
Afariak bataioak jaunartzeak
Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

KEMEN KIROLAK
Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

*rasoen arteko harremanak sendotzen baitira. Herrimina edo herritartasuna sortzea garrantzitsua da herriaren etorkizunerako".*

## Goierriko herririk zaharrena

Goierriko herririk zaharrena da Mutiloa. Hau da, 70 urtetik gorako biztanle gehien duen herria. Biztanle kopuruak ere azken urteetan beheranzko joera izan du, nahiz eta egonkortu den. 1981ean 225 biztanle zituen eta gaur egun, 160. Beherakada horren eta zahartze horren arrazoiak jakin nahi izan ditugu: *"duela urte batzuk, etxebizitzarik ez zegoen eta bertako bikoteek alde egin behar izan zuten. Batez ere industria zegoen lekuetara joan ziren. Orain jende hori berriz ere erakartzea ere bada gure erronketako bat. Baserriak ere husten ari dira. Utzi ez dira egin, baina kasu askotan bizi ere ez dira egin. Gaur egun, lehenengo sektoretik bizi direnak, bi artzain bakarrik dira".* Adineko jendearen kopurua handia denez, hauei begirako zerbitzuak ere sortu eta areagotu egin beharko direla argitu du Ugaldek.

# Proiektuak asko, dirua gutxi

**Herri txikiek aurrera egiteko zailtasunik nabarmenak zeintzuk izaten dituzte?**

Zailtasunik handiena diru falta da. Mutiloan ez dago, inondik, diru iturri handirik. Askotan proiektuak eta ideiak buruan izaten dira baina dirurik gabe ezin dira aurrera eraman. Herri txikiak nahi ditugu, baina herri txikiak mantetzeko eta herri txikiak aurrera ateratzeko, laguntzak behar dira.



*Iñaki Ugalde, Mutiloako alkatea.*

**Erakundeetatik ez al dago herri txikientzako diskriminazio positiborik?**

Fondo forala badago, dirulaguntzak eta ere bai... Baina horrelako udaletxe baten baliabideak ere ez dira handiak. Mugituz gero dirulaguntzak lortzeko aukerak izaten dira, eta iaztik hasita gaude bide horretan. Baina udaletxeko bitartekoak txikiak dira eta askotan kosta egiten da.

**Landa garapen programak, Agenda 21... eskualdeko proiektuak badaude...**

Gu sartuta gaude Agenda 21ean ere. Agenda 21 hori herriaren diagnostiko eta azterketa bat da. Nik ondo ikusten dut, herriaren radiografia baita. Horrelako egitasmoak oso politak izaten dira, baina ekintza horiek aurrera ateratzeko bitarteko gutxi izaten da. Horrelako ikerketak egiteko jartzen diren bitartekoak, gero gauzatzeko jarri beharko lirateke.

**Arama, Altzaga, Gaintza eta Mutiloa zarete 200 biztanlez azpiko herriak Goierrin. Elkarren artean harremanik ba al daukazue?**

Agian, faltan botatzen dudan gauza bat da. Azken batean, herri txikiak bagaude Goierrin. Azken batean arazo beretsuei aurre egiteko indar handiagoa edukiko genuke denon artean.

**Herri txiki bateko alkatearentzako buruhauste handiena zein da?**

Behar batzuk ikusi eta askotan behar horiei aurre egiteko aukerarik ez izatea.




## Ordizia 2007 Plan Estrategikoa aurkeztu da

# Etorkizuneko Ordizia eztabaidagai

**Nolako Ordizia nahi duten erabakitzeko garaian daude ordiziarrak. Siadeco enpresaren laguntzarekin Ordiziaren diagnostikoa egin da eta orain, udalaren zein herritarren garaia da hausnarketa egin eta etorkizuna garatzeko. Alejandra Iturrioz alkateak kontatu dizkigu xehetasunak.**



*Alejandra Iturrioz, Ordiziako alkatea.*

Ordiziaren diagnostikoa eta plangintza garatzeko prozesu etengabea izan nahi du Ordizia 2007 Plan Estrategikoak. Ordiziaren etorkizuneko garapenean, udalaz gain, herriko eragile ezberdinak, eta orokorrean, herritarrak, inplikatu nahi ditu Ordiziako Udalak. Siadecok egin du plan estrategikoa, udaleko arduradun politikoekin eta teknikariekin nahiz herriko talde eragileekin artean egindako galdeketen ondorioz.

Alejandra Iturrioz alkateak bigarren legegintzaldia du honakoa eta 2007. urteko tartea jarri du plana lantzeko. Eskualdeko plan estrategikoa egin aurretik egin nahi dute Ordizian, aurreko kasuan arrazoi hori tarteko bertan behera gelditu baitzen Ordiziako plana. Alejandra Iturriozek adierazi digunez, "*norberak bere argazkia edukita errazago kokatuko baita bailaran egiten diren plantemendu horietan*".

Iturriozek jakinarazi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak plangintza luzeak hartzen ditu kontuan dirulaguntzak emateko orduan eta beharrezkoa da Ordiziak ere urteetarako plana eginda edukitzea.

### Herritarren partehartzea

Herritarren partehartzea guztiz beharrezkoa ikusten du alkateak, Ordiziaren diagnosia egin eta etorkizuna erabakitzeko garaian. Udalak lanerako gidoia jarri du, gidoia lantzea guztien egitekoa da. "*Orain urte batzuk errazagoa izaten zen talde ezberdinen hausnarketa horrelako plan batean, gaur egun asko kostatzen da jendea honetara erakartzea. Beraz, zerotik hasi ordez egokiago ikusten zen*

## Hainbat proposamen

### Aparkalekuak

Batetik, lurpeko aparkaleku berriak sortzeko aukerak aztertzea proposatzen da, emakida administratibozko erregimenean. Bestetik, Eroskiko atzealdeko aparkalekua birgaitzea proposatzen da (egun 120 ibilgailurentzako tokia duena), argiztapen eta seinalizazio egokia emanez eta, ahal den neurrian, sarbideak hobetuz. Bertan beste 30 ibilgailurentzako aparkaleku berriak egitea ere proposatzen da.

### Mugikortasuna eta garraioa

Trafikoa eta garraioaren erabilera hobetzen lagunduko duen informazio-sistema bat sortu. Helburuak honakoak lirateke: oinezkoen eta ibilgailuen arteko konbibentzia orekatua lortzea, trafikoa lasaitzea, zarata gutxitzea eta garraio publikoa nahiz garraio ez motorizatua sustatzea. Alde Zaharreko perimetroan, Diego Rivero, Joseba Rezola, Gudarien etorbidea eta Foru etorbidean, ibilgailuentzako bidea estutzea eta oinezkoentzako gaineko pasabideak ezartzea proposatzen da.

### Etxebizitzak

San Juan inguruan 574 etxebizitza eraikitzea, horietatik 415, babes ofizialeko etxebizitzak izango dira.

### Herri arteko loturak

Etorkizuneko Beasain-Ordizia-Lazkao multzoan herri arteko loturak hobetzeko beharrezkoak diren ekintza estrategikoak finkatu, San Bartolome auzoaren eta Agarre eta Upabi zonaldeen berrantolaketan aplikatu ahal izateko.

### Hirigunean oinezkoentzako sistema

Alde Zaharraren perimetroan oinezkoen baldintzak hobetu, herriko hiri egiturarekiko artikulazioa errazteko. Aldi berean, Urdanetan, Foruen pasealekua, Gudarien etorbidea eta Joseba Rezola kaleetan oinezkoentzako sistema hobetuz, gehienezko eragin soziokomunitarioko eremua zabaltzea.

### Turismoa

Herrian gaua pasatzeko ostaturik ez dago eta horri aurre egiten saiatuko diren proposamenak aztertzea proposatzen da. Aldi berean, oso garrantzitsutzat jotzen da udalerrian kokatutako Turismo Informazio bulegoaren funtzionamendua sendotzea.

### Azoka

Asteazken eta ostiraletako azoken berrantolaketa planteatzen da, merkataritza agertoki ordenatu eta erakargarria osatuz eta promozio kudeaketa eta banaketarako sistema berriak erabiltzeko modua izango duena.

*gidoi bat izatea eta gidoi baten aurrean, behar diren taldeak osatu, eta bertan dokumentua landu, zehaztu, irizpideak markatu eta lehentasunak jarri."* Etengabeko harreman iturria sortu nahi du udalak herriko talde eragileekin. Honela, metodologia berritzailea izango da Ordizian plana garatzeko: arlo ezberdinetako talde eta elkarteak mahai beraren buelta eseriko dira. *"Ikuspegi orokorra izan nahi dugu, bakoitzak bereari begiratu beharrean. Oso zaila gertatzen da askotan udalaren erabakiak eta lehentasunak justifikatzea. Programa bat egonda, eta guztion artean beharrak eta lehentasunak ikusita, errazago ulertuko dira hartutako erabakiak"*, dio Alejandra Iturriozek.

## Herritarren partehartzea

20 erronka estrategiko identifikatu dira plan estrategikoan. Ondoko koadroan dituzue banan-banan. Bakoitza garatzeko eta lantzeko proposamenak egin ditu Udalak. Otsailean, Barrena jauregian dagoen erakusketan ikus daiteke informazio guztia. Bertan, edozein iradokizun jasotzeko postontzia ere jarrita dago.

## 20 erronka estrategiko

**1.-** Ordiziako herritarrei ongizate eta bizi-kalitate handiagoa bermatzeko eta biztanleriaren estratu desberdinen arazo espezifikoei irtenbidea aurkitzeko, azpiegitura, ekipamendu eta zerbitzuen planifikaziorako irizpideak eduki.

**2.-** Etxebizitza-beharra asebetetzeko behatoki bat antolatzea.

**3.-** Udalerrirako sarbideak hobetu eta Ordiziako interesak udalerriz gaindiko planifikazio eta planteamendurako gainerako tresnetan txertatu.

**4.-** Goierri eskualdearekin koordinaturik, Tokiko Agenda 21 hartzea, herriko garapen eramangarriaren alde lan egiteko.

**5.-** Udalerriaren eta bere ingurunearen baliabide naturalak mantentzea, hobetzea eta balioestea.

**6.-** Alde Zaharreko perimetroan oinezkoen baldintzak hobetzea, herriko hiri-egituraketarekin modu egokian artikulatzeko.



**7.-** Udalerrian eragin soziokomunitario gehien duen esparrua zabaltzea.

**8.-** Beasain-Ordizia-Lazkao markoaren barnean herri-arteko loturen egitura hobetzea.

**9.-** Trafikoa hobetzea eta garraio publikoa nahiz garraio ez-motorizatua sustatzea.

**10.-** Aparkalekuen arazoak konpontzea.

**11.-** Integrazio, kooperazio eta gizarte parte-hartze mailak areagotzea.

**12.-** Ordiziako hirigunea harreman, aisialdi eta atsedenerako konplexu soziokulturala bihurtzea, aisialdi eta gizarte dinamizazioa sustatuz.

**13.-** - Herriko hizkuntz normalizazio-prozesua garatzea, integrazio eta kohesio sozialerako bitarteko bezala.

**14.-** Kirol zerbitzuen, eragileen eta ekipamenduen planifikazioa, funtzionamendua eta kudeaketa hobetzea.

**15.-** Ikuspegi integral batetik, merkataritzako, azokako eta ostalaritzako jarduera ordenatzea eta antolatzea, sektore hauen arteko sinergiaz baliatuz, eta Ordiziari proiekzio eta erakargarritasun soziokomertzial handiagoa emanez.

**16.-** Ordiziako azokako jarduera berritzea eta indartzea.

**17.-** Ordiziako produktu turistikoa lantzea eta sustatzea.

**18.-** Bazterketaren prebentzioaren, jokaera solidarioaren eta gai kouminitarioen inguruan gizartearen sentikortasuna sustatzea eta Ordiziako esparru soziosanitarioa artikulatzea.

**19.-** Herritarrek bizitzan zehar formazioa jasotzeko ahalik eta aukera gehien izan dezaten laguntzea.

**20.-** Formazio, ikerketa eta berrikuntza-gune baten sorrera sustatzea.



# Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eramango du aurrera Ordiziako Udalak

**Dagoeneko EAEko 13 udal eta mankomunitate bat ari dira Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurrera eramaten. Hiruzpalau urteko plan estrategikoa prestatu ondoren, urtean urteko kudeaketa planen bidez garatzen ari dira EBPN. Beste hainbat erakunde orain dela gutxi abiatu dira lan horretan horietako bat da Ordiziako udala. Horretarako hiru helburu estrategiko kontutan hartuta ekin dio lanari: euskara belaunaldiz belaunaldi ondorengotzea, euskararen erabilera eremuak zabaltzea eta hizkuntza etengabe elikatzea. Jarraian duzue planaren laburpena.**



*Ordiziako Udalak hartua du EBPN egin eta garatzeko konpromisoa. Erakundeen artean elkarlanean gauzatuko da plana eta erakundeen ekimena bertako gizarte eragileen ekarpenarekin osatuko da.*

## Zer da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia?

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean egina da eta Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak onartua izan da. Datozen urteetako hizkuntza-politika zehazten laguntzeko plan estrategikoa bezala dago plantеatuta. Dokumentu irekia eta eten gabe egokitzen joateko dateatuta. Dokumentu irekia eta eten gabe egokitzen joateko dago sortua. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko eta maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko da EBPN.

### Helburuak

- Euskara, belaunaldiz belaunaldi eta etenik gabe geroratzea. Horretarako irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea eta familia dira ardatz nagusiak.
- Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolaz kanpoko erabilera eremuetara zabaltzea: administrazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, lan mundua, aisia, kirola, erlijioa...
- Hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko, etengabe elikatzea: Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, komunikabideak, liburugintza, publizitatea, kulturgintza...

### Udalean eta udalerrian

Udalean herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta euskara zerbitzua sendotu beharra ikusten da.

Udalerrian hiztunek euskara ikastea edota duten gaitasuna sendotzea bultzatzea da helburua. Harreman-sare euskaldunak egituratzen lagundu behar da, baita euskarazko produktu eta zerbitzuak, zein horien gaineko informazioa zehatza ere bideratu behar dira.

### Diagnostikoa: indarguneak

1981etik 1996ra, euskaldunen portzentajea 14,6 puntu hazi da. 19 urtetik beherako gaztetxoen artean, hamar lagunetik bederatzi euskaldunak dira. Ordiziako multzorik handiena euskaldun zaharrak osatzen dute (%42,83). Euskaldun berrien portzentajea garrantzitsua da gazteen artean eta gora doa.

Etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik gorakoa denean, euskaraz hitz egiten dute nagusiki; biztanleen erdia horrelako dentsitatea duten familietan bizi da. Irakaskuntza maila guztietan D eredua da nagusi. Lanbide Heziketan ikasle guztiek D eredua hautatu dute. Hiru ikastetxetan hizkuntza normalkuntzako proiektua martxan dute.

GOIERRITARRA euskarazko hamabostekaria banatzen da. Goierri telebista eskualderako euskarazko telebista abian da. Gaur egun, Ordizian bi enpresa daude euskararen erabilera-planak dituztenak.

### Diagnostikoa: ahuleziak

Erdaldun elebakarren portzentajea, beherako joera izan arren, oraindik nahiko altua da (%30,2). Familietan euskaldunen dentsitatea behera doan heinean, euskaraz hitz egiten dutenen kopurua asko jaitsi da.

### Euskara geroratzeko hainbat neurri

Familia bidezko jarraipena indartu behar da. Gurasoak, gurasogaiak, zaintzaileak... euskararen alde sentsibilizatzeko ekintzak antolatu behar dira, baita euskara erabiltzeko guneak eta zerbitzuak eskaini ere.

Irakaskuntzan euskara ohiko hizkuntza harremana izan behar da: egitarau zehatzak antolatu, euskara eskolako ekintza guztietako hizkuntza izan dadin baita eskolaz kanpo euskararen erabilera bultzatu ere.

Euskalduntze-alfabetatze alorrean, euskaltegietan ikasitakoa erabilerarekin lotzeko laguntza eskaini behar da.

## Erakundeen konpromisoak

### Jaurlaritza

- Aholkularitza eta elkarrizketa zuzena, maila politikoan eta teknikoan.
- EBPN garatzeko prozedura
- Ordiziako euskararen diagnostikoa, alorrez alor.
- Ordiziako erabilera-planaren eredua.
- Plan estrategikoaren eredua, Ordiziari egokituta.
- Euskara Aholku Batzordearen eredua, gizarte-eragileen partaidetza bideratzeko.
- Euskara Zerbitzuaren eredua.
- EBPN garatzeko finantziazio-eredua.
- Komunikazio-planaren eredua.
- Aplikazio informatikoa EBPNren kudeaketarako.

### Udala

- Solaskidea izendatzea garapen teknikorako eta aplikazio informatikoa erabiltzeko.
- Orain artean Ordizian egin diren ekintzen datu-bilketa.
- Diagnostikoa aztertu eta osatzea.
- Ordiziako Udaleko erabilpen plana egitea.
- Plan estrategikoaren iraupena erabakitzea eta proposamena egitea.
- Euskara Aholku batzordearen proposamena egitea.
- Euskara Zerbitzuaren proposamena egitea.
- EBPNren aurrekontuaren proposamena egitea.
- Komunikazio-planaren proposamena egitea.
- Lehenengo urteko kudeaketa plana osatzea.

**Foru Aldundia:** Prestakuntza eta dirulaguntzak



*EBPN-ren aurkezpena Barrenan.*

Arlo honetan ezinbestekoak diren gizataldeak identifikatu eta horien helburuei erantzuteko eskaintza eginez.

Aisialdian hiru neurri aurreikusten dira: alor honetan euskararen erabilera areagotzeko plangintzak bultzatu, begiraleen euskarazko heziketa bermatu eta aisialdiko ekintzak ingurune-hezitzailean eskaini.

Kirol elkarteen jardunean, eskola-kirolean eta kirol guneetan euskararen erabilera bermatu behar da.

Teknologia berrietako euskal produktuen eskaintzaren berri eman eta euskal ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta zabaltzea proposatzen da.

Euskara administrazioaren zerbitzu hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza izateko ahalegina ere egingo da. Merkataritza alorrean euskararen erabilera eta sentsibilizazioa bultzatu da eta enpresa txikietan lehen harremanei ekingo zaie.

Komunikabideei euskararen normalizazioan ezinbesteko arloa izan daitezen laguntza eskainiko zaie eta euskarazko eskaintzaren berri emateko hedabideekin elkarlanean jardungo da.

Kulturgintzan hiru neurri hartuko dira: haur eta gazteentzako euskarazko kultur eskaintza lehenetsi, helduentzako kultur eskaintzan euskara bultzatu eta kultur taldeei euren lana euskaraz burutzeko laguntza eskaini.

Corpus plangintza: hizkuntza-paisaia ugaldu eta txukundu eta ahozko euskal kultur produkzioak ere landu; etxeko hizkuntza aintzat hartu, naturaltasuna lortzeko.




# Jexux Aizpuruak Imanol Apalategiri buruzko biografia idatzi du

# Aita Bonifazio Ataun (1901-1984)

**Eusko Jaurlaritzaren 'Bidegileak' bildumaren barruan, Ataungo Imanol Apalategiri, 'Aita Bonifazio Ataun', buruzko biografia egin du Jexux Aizpurua Barandiaran ataundarrak. Jarraian duzue euskaltzale eta abertzale honen bizitzaren laburpena.**

Manuel Maria Apalategi Zurutuza, Ataungo Murkondo auzoko Sabiaga baserrian jaio zen 1901. urteko apirilaren 13an. 1905ean Olaberriako Garitaiñazpi baserrira aldatu ziren. 1912an, Garitaiñazpi suak erre ondoren, Beasaingo Zunzunegi baserrira joan ziren. 1912an Lazkaomendiko Lizargarate baserrira eraman zuten morroi txiki. 1914an Altsasuko kaputxinoetan sartu zuten. 1918an Zangozara eta bertan jantzi zuen kaputxinoen abitua, Ataungo Bonifazio Anaikide izentzat hartuz. Bizitza guztian *Ataun* izena izan zuen nortasunaren ikur.

Berehala eman zioten haur euskaldunei kristau-ikasbidea erakusteko ardura. Hondarribian, Iruñean eta Lekarotzen filosofia ikasketak egin eta lehendabiziko euskarazko lanak idazten hasi zen.

## Apaizgintza

Mateo Mujika gotzainak apaizturik, Lekarotza doa irakasle 1927an eta 1935ean Hondarribiara joan zen. Irakasletzan ez ezik, sermoilaritzan ere izugarrizko lana eta arrakasta izan zuen. Beasaingo Arriaran auzoan abertzaleen bilera batean ere sermoia egin zuen. Azkeneko hitzaldiak Azpeitiko Loiolan egin zituen. Euzko Gudarosteko lehendabiziko kaperau izanik. Hitzaldi gehienak euskaraz ziren eta berauen laburpenak, bederik, idatzita eta gordeta zituen baina gerra hastean "guda-santuzaleak" erre egin zituzten bestelako idazki eta liburuekin batera. Hitz jario handikoa izan zen euskaraz, gazteleraz nahiz frantsesez.

## Euskal kultura

Lekarotzen piztutako txingarra areagotzen joan zitzaion eta 1919an hasiko da bere euskarazko lantxoak idazten eta, han eta hemen, argitaratzen. Zeruko Argian zuzendari izan zen 1934ko urritik 1936ra arte eta baita Irugarren Prantziskotarrarena ere. Gai gehienak erlijioaren ingurukoak izaten ziren.

Euskal kulturarako joera zela eta, Gasteizko gotzainak horretarako baimena eman zion *"prentsa katolikoan idatzi bai baina, gai politikoetan ez sartzekotan"*.



1936ko ekainean Donostian zenbait euskaltzale bildu zen Azkueren zuzendaritzapean, eta euskararen batasunaren beharraz eztabaidatu ondoren, aditzaren batasuna egiteko agindua berari eman zioten. Gero, ordea, gerra zela-eta, bertan behera geratu ziren asmo haiek guztiak.

## Hondarribia eta gerra zibila

Iruñeko kaputxinoetxea, Hondarribiakoa bezalaxe, guda aurrean euskararen bultzaleku zen, batik bat, Intzako Damaso kaputxinoari esker. Eta agintariek eta eliz-buruek azkar jo zuten euskal kulturazale horien harrobi ziren Iruñea eta Hondarribiako komentuetara. Ordurako kaputxinoak 'Euskal Eliza' osatzek pausoak ematen ari ziren.

Gerra hastean, preso hartu eta Guadalupetik askatu ondoren, gudarien lehenengo kaperau izatea erabaki eta Loiolan izan zen; han osatu baitzen Euzko Gudalostea. Guda zabaltzen hasita zegoen eta Loiolako gudariak Saturraran aldera joanda zeuden. Joxemiel Barandiaran auzokide ataundarra ere han zen; Mutrikuko Jentilletxea koban ari baitzen indusketa-lanetan. Mutrikutik, itsasontziz, Donibane Lohitzunera ihes egin zuen Aita Bonifazio Ataunek, handik Baionara joateko. 1936ko urriaren 24an Okzitaniako Tolosan da. Azaroan lortu zuen Frantziako pasaportea 'transeunte' gisa Europara bidaiatzeko. Pasaporteko datuen arabera; 35 urte, altua, ile beltza eta kolore sanokoa.

Ordurako euskal kulturaren munduan murgilduta zebilenez, Parisen Eusko Jaurlaritzak argitaratzen zuen 'Euzko Deia'-n hasten da poematxoak argitaratzen.

## Erbestera bidean

Erbestera bidea hartu ondoren, buruhauste eta korapilo handiak sortu zitzaizkion, batetik Aberriaren egoera gerra zela eta, bestetik berriz, kaputxinoburuek eta eliza ofizialak azaldutako joera, Francoren erregimenaren alde jarriz edo ez bata eta ez bestea; ondorioz, alde jarriz. Sutu egi-




ondoeta

✆ 943 88 31 02 - 943 88 74 51
Faxa: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.



*Ataundar erlijiosoen bilkura Aralarko Atxueta mendian.*

ten zuen egoera lazgarri hark eta ezin egonean zebilen hainbeste axolagabekeria sumatuz. Ezin zituen lotu eta onetsi, fedea eta frankismoa bateragarri egiten zituztenak, nahiz eta erlijiosoak izan. Eta halaxe adierazteko ez zuen mingainean enbarazurik izaten; egiazalea zen, inor bazen.

Erbestera bidean, fedeari atxiki, Lourdesera joan zen. Iritsi eta Gudarostearentzat laguntza eta Aberriarentzat bakea eskatu zituen. Leizaola sailburuaren burubidez, Euskadiko Jaurlaritzako Justizia eta Kultura Sailak Kataluniara bidali zuen 1937ko martxoaren 29an, Espainiako kontsulari baimena eskatu ondoren. Frantziako hiritar agiria lortzen du 1937ko abenduaren 15ean eta Okzitaniako Tolosan bizi da baina osasunez pattal samar. Ipar Euskalerriratu ondoren, kaputxinoek Okzitaniako Tolosarako egoitzara bidaltzeko bideak egiten dituzte. Han zenbait gorabehera izan zituen; dirudienez, kaputxinoen buruzagitzako zenbaitek Altxamenduaren aldeko jarrera hartu bide zuen eta, horregatik, aita Bonifazio Ataunen jokabide abertzalea ez zuten, inolaz ere, ontzat hartzen. Hori zela eta, hainbat gutun, ez oso atsegin, idatzi zioten elkarri.

1938ko abenduaren 7an Marsellatik irten zen Ameriketara. 27an iritsi zen Buenos Airesa.

## Argentinan

Beste kaputxino asko bezalaxe, Elias Labiano ere 1936an joan zen Argentinara. Lehendik eta han ere harreman handia izan zuen aita Bonifazio Ataunekin. Hona ataundarrari buruzko iritzia: euskaltzalea, zuzena, zuhurra eta begirune handikoa.

Argentinan apaiz-lanari lotu zitzaion, baina antolaketa eta idazkuntza ahaztu gabe. Nueva Pompeya, Cordoba, Buenos Aires, Godoy Cruzen erretore izan zen. 1961etik 1977ra arte Argentinako Ekintza Katolikoko aholkularia ere izan zen.

Bihotza lasaitzeko bidea izaten zuen Aberria aipatu eta goratzea. Otoitzean ere gogoan izaten zuen Euskal Herria. Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos-eko zuzendari ere izan zen 12 urtez.

## Euskalerrira bidean

Euskal Herriratzeko asmozedo, Europara etorri eta Cannes-en lurreratu zen. Espainiako kontsulatuan emandako pasaportea zuela etorri ere, inongo eragozpenik gabe, 660 pezeta ordaindu ondoren. Lehenago erromes sail batekin etorri nahi izan zuen, baina galarazi egin zioten eta oraingoan ere bai. Hori horrela, Erromara joan eta handik idazten dio Iruñeko kaputxinoburuari, jasotako gutunari erantzunez. Ordurako Espainiako kontsulatuan emandako pasaporte argentinarra bazuen. Kontsulatuan bere aurka ezer ez zegoela adierazi omen zioten, hala ere, berak jakin ahal izan zuenez, 1954ko ekainaren 15eko aginduz "prohibida la entrada aunque lleve pasaporte en regla" eta Parisen ere bazen antzeko zerbait "Prohibicion otorgar visado".

Kaputxinoen buru zen aita Aurelio Laita Maneruk Madrilgo 'Ministro de la Gobernación' delakoari idatzi zion 1971ko maiatzaren 19an, aita Bonifazio Ataunentzat pasaportea eskatuz, familiarteko baten osasun txarra zela-eta. Garai hartan Argentinako pasaportez Erroman zen baina, eta etxera itzuli nahi zuen.

Argentinan zela, apaizgintzako 50 urteak ospatzeko, berealdiko omenaldia egin zioten, 1977an, Nueva Pompeyako eliza nagusian. Erromatik ere jaso zuen zoriona, Pascual Rywalski buruaren izenean.

Etortzeko irria, ordea, areagotzen ari zitzaion. Bazekien, bestalde, Espainian amnistia hotsak bazirela. Eta Iruñeko kaputxinoburuari idazten dio: "Aministia giro honetan, fraile txiro hau, 1936ko gerra zela eta, Ordenako nagusiek erbesteratutako fraileentzat amnistia eskatzen dizut, apalki. Anaidiko nagusiek ezarritako desterruan hil naizela inork esaterik ez nuke nahi, gizatxar doilor bat naizelako amnistiarik ere merezi ez nuelako. Zurengandik amnistia lortzen badut sorterrira itzuliko naiz; bestela, hementxe hilko naiz nire desterru bikoitzean". Kaputxinoburuak ondo hartu zion asmoa eta nahi zuenean etortzeko erantzun.

Atzerritik itzultzean, Donostiako kaputxinoetan bizi izan zen. Bere eginkizuna, batik bat, aitortza edo aitortza-lana izaten zen. Hiru urtetan 46.111 aitortza entzun zituen.

Donostian hil zen 1984ko abuztuaren 17an, 83 urte zituela eta horietatik 65 urte erlijio-lanetan, ATAUN izena munduan zehar erabili zuen euskaltzalea.

ARANDIA
Garajea
LADA
Ssang Yong
AUTOEN KONPONKETA
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47
Iurre Auzoa
OLABERRIA

ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
☎ 943 80 10 66
Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. Ordizia: Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. Lazkao: Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. Legorreta: Dorronsoro. Zegama: Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. Segura: Erosle. Idiazabal: Ahizpak. Ormaiztegi: Iñaki Erosle. Zumarraga: Rueda dendak. Legazpii: Jabi harategia.

## Etxebizitza babestuak aukeran jarri ditu Beasaingo Udalak

# "Hotelean baino hobeto gaude"

**Beasaingo Udaletxeko Gizarte Ongizate Sailak zerbitzu berria jarri du martxan: etxebizitza babestuak. Maria Jesus, Goia eta Daniel dira lehenengo etxebizitza babestua estreinatu dutenak.**

Lau etxebizitza babestu prestatu ditu Beasaingo udalak, Ezkiaga auzoan. Batez ere gaur egun hirugarren adineko pertsonek dituzten bi arazo nagusiri irtenbidea bilatu nahi izan diote Gizarte Ongizate sailean: bakardadeari eta eskailerei.

Etxebizitza konpartituak dira, 3 edo 4 lagunentzako. Gizarte Ongizatekoen helburua, gizonezkoak eta emakumezkoak etxebizitza ezberdinetan banatzea da, nahiz eta hasieran, horrela egokitu delako, nahastuta dauden. Logelak banakakoak dira, telebista eta guzti. Logela bikoitzak ere badaude, senar-emazteen, ahizpen, anaien, lagunen... kasurako.

Hirugarren adineko pertsonei egokitutako etxebizitzak dira. Norbere etxean izan ditzaketen oztopo arkitektonikorik gabeak. Esaterako, eskailerarik igo beharrik gabe, igogailua dute etxebizitzek.



### Familia berria

Otsailaren 2an sartu ziren Daniel Vidal (80 urte), Goia Miguel (85 urte) eta Maria Jesus Santamaria (92 urte) Beasaingo Udalak prestatuko etxebizitza babestuan. Prestatutako 4 etxebizitzetatik lehenengo osatu dutenak dira. Etxera bisita egin genienean, oso gustura zeudela azpimarratu ziguten behin eta berriz. *"Neskame"* partikularra ere badute: Ana. *"Oso sukaldari ona da"*, aitotu digute. *"Hotelean baino hobeto gaude, guztia eginda daukagu eta. Egia esan, bizitza guztian dena egitera ohituta gaudenez, arraroa ere egiten zaigu. Bizi kalitatea orain edukiko dugu"*, aitortu digute. Hori bai, betiko etxebizitza utzi izanaren pena ere badute, noski.

Bakarrik bizi zirelako eta beraien etxeetara igotzeko eta kalera jaisteko eskailera asko zituztelako animatu dira etxebizitza babestura joatea. Orain etxea elkarbanatu beharko dute. *"Bistaz hiruok ezagutzen ginen"*, diote. Momentuan behintzat, ez dute haserrealdirik izan.

Familiakoen eta lagunen bisitak hartzen dituzte eta desiatzen daude etxebizitza gehiago betetzeko. Jendea animatu nahi dute lerro hauen bidez.

*"Bakarrik jende asko dago. Eskailerak ere oztopo handia da hirugarren adinekoentzat, askotan kalera ere ezin izaten baitute atera eskailerak ezin dituztelako jaitsi eta igo"*, nabarmendu du Iohana Zabalegi, Gizarte Ongizate Saileko langileak.

Beste era bateko laguntasuna ere badute bertako bizilagunek. *"Neskame"* partikularra dute, kasu honetan Anak, otorduak prestatu, erosketak eta garbiketak egiten dizkie. Goizean 10etatik 2etara eta afari garaian izaten da etxean Ana. Parte hartzea ere bultzatzea ere bada bere lana, bizilagunak motibatzeko eta dinamizatzeko.

### Baldintzak

Etxebizitza hauetan bizi ahal izateko hiru baldintza bete behar dira: pertsona autonomoa izatea, 60 urtetik gora izatea eta azkeneko 2 urteetan Beasainen erroldaturik egotea. Erabiltzaileak kopuru bat ordaindu beharko du zerbitzuaren truke, bakoitzaren egoera ekonomikora egokitutako kostua. Iohana Zabalegik zehaztu digunez, *"lehenengo Beasaingo jendeari zuzendu zaio baina ez dugu aukerarik baztertzen Goierrira ere zabaltzea, bakoitzaren herriko udalak bere kargu hartuko balu kostua. Zerbitzuaren kostuaren zati bat udalak ordaintzen du eta bestea erabiltzaileak, bakoitzaren egoera ekonomikoari egokituta"*. Gipuzkoako herri askotan omen daude etxebizitza babestuak eta guztietan ere erantzun ona jaso omen dute. Hemen, Goierrin, Beasainen izan dira antzindariak, nahiz eta Idiazabalen, hutsik dagoen horrelako etxebizitzaren egon badagoen.

ARRIETA
JATETXEA
☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak... era guztietako ospakizunak

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak
San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

# Gabiria



*Arg.: Eneritz Gorrotxategi*

## Martxan da herriko ostatua

Txalapartaren ttakun hotsek eta trikitixaren doinuek eman zioten hasiera lehengo igande eguerdian, otsailaren 8an, herriko ostatuaren aro berriari. Hilabete itxita egon da taberna, eta margoketan zein argikuntza berria ipintzen txukundu bat eman ondoren buru-belarri ekin diote Bosquetarrek lanari, Ostatuko maizter berriek. Aloña eta Nagore ahizpak eta Arantxa lehengusua izango dira aurrerantzean martxaren arduradun.

Ilusio handiarekin heldu diote erronkari, Aloñak esan digunez *"osagai politak"* baititu herriko ostatuak; *"toki paregabean dago kokatua, egunpasa etortzeko inguru ederrean, eta instalazioak ere egokiak ditu, sukalde bikaina, adibidez"*. Taberna zerbitzuaz gain eguneroko menua eskainiko dute, bai eskolaumeentzat baita langile jendearentzat ere.

Menutik aparte plater konbinatu, arrazio eta ogitartekotan aukera zabala jarri dute. *"Asteburuetarako plater gehiago eskainiko ditugu hasieran, osagarri gisara. Behin martxa hartu eta erosoago finkatutakoan karta atontzeko helburua daukagu"*, argitu du sukaldean Arantxarekin batera jardungo duen Aloñak. Nagorek, berriz, barraren atzean lan egingo du.

Lehen uneko burrundara igarota, arreta eguneroko zereginetara ezezik etorkizunera ere luzatuta daukate ostalariek. Ostatu Zahar etxean bertan biziko dira eurak, eta egitasmoak ez zaizkie falta; *"bisitarientzat logelak prestatzeko proiektua dabilkigu buruan"*. Gero gerokoak, ongi hasitakoak hala jarrai dezala eta zorte ona izan dezatela herriko bilgune garrantzitsuenetako bat den ostatuarekin.

### Matrikula epea eskolan

2004-2005 ikasturteari begira, otsailaren 16tik 27ra dago ofizialki haurren izenak emateko epea Balentzategi herri eskolan. Hori horrela, lehendabizikoz hasteko asmoa dutenentzat, batik bat bi urteko haurrak dituztenentzat, eskolaren funtzionamentu eta zerbitzuen berri emateko hitzaldia antolatu da datorren asteazkenerako, hilaren 18rako, arratsaldeko 4retan, eta interesatu guztiei bertara agertzeko deia egiten zaie.

### Labur-labur

- **Liburutegiko ordutegia** aldatu da. Asteartero 16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik hemendik aurrera.
- Ur kontsortzioak jakinarazi duenez, iazko bigarren seihilabeteko **uraren eta estolderiaren gastuak** martxoaren 30era bitartean ordaindu beharko dira, aurrezki kutxen bidez.
- Otsailaren 29an dago iragarrita aurtengo **Gabiriako rallysprinta**.

*Aimar Maiz*










Ordizia

# Udal aurrekontuak onartuta

Urtarrileko plenoan 2004 urteko aurrekontuak onartu ziren EAJ-EA alderdiaren aldeko 8 boto, PSEren aurkako 2 eta EBren aurkako 1ekin. Guztira 10.627.130 euroko aurrekontua da eta hortik 8.558.583 dira Udala berari dagozkionak, ia 2 milioi San Jose Zahar Etxeari, 155.000 Herri Antzokiari eta ia milioi bat Majori Kiroldegiari.

Inbertsio atalean esan gehienak iaz hasitako lanetarako erabiliko dela, hau da, Domingo Unanue etxea, Andra Mari Kalea eta Etxezarreta elkartuko dituen pasabidea, Oreja-Apellanizeko hirigintza lanak eta Herri Gunea. 373.000 euro, aldiz, Goierri Lan bide Eskola, Urdaneta Ikastetxea San Juan auzoa, Herri Antzokia, Majori eta Domingo Unanue Etxearen kudeaketa eta plan estrategikorako erabiliko dira. Euskal Jaiek 100 urte beteko dituztela eta partida berezi bat izango da aurten honetarako (71.000 euro).

2003ko kontuetatik zein soberakin izango diren jakin bezain laster erabakiko da zertan erabili kopuru hori. Aurreikusita daude Kutxa zegoen etxearen berrikuntzak, Santa Ana botatzea eta beste hainbat gauza.

*Aitor Calvillo*



## Euskaraz bizi

Euskararen erabilera bultzatu asmoz 'Euskaraz bizi' eguna burutu zuten joaneko otsailaren 10ean Jakintza Ikastolako ikasle eta irakasleek. Goiz-goizetik herriko kaleetan zehar izan genituen jolasak, herri kirolak, erosketak eta abarrak eginez, jendeari Ordizian euskaraz bizi daitekeela erakutsi nahian.

## Sari oparoak muslarientzat

Argi Berri Elkarteak mus txapelketa azkarra antolatu du otsailaren 14rako. Bikote irabazleak 1.000 euro jasoko ditu Iñaki Tabernak emandako txapelez gain. XXVII. Txapelketa izango da aurtengoa eta bertan lortutako mozkinak preso eta iheslari ordiziarrei helaraziko zaizkie.

Mus jokoak gora egin du azken urteotan eta horren adierazgari da parte hartu duten bikoteen kopuruak izan duen gorakada. Eta ez bakarrik Ordiziako txapelketan, baita eskualdean antolatzen diren beste mus txapelketa azkarretan ere (Zaldibia, Beasain eta Lazkao). Ia guztietan 100 bikotetik gora izan dira.

Bikoteko 25 euro ordaindu beharko da. Jokoak 4 erregetara eta 6 hamarretako 3 ustelera izango dira. 16:15erako izena emana beharko da Bustuntza auzoko Elkartean bertan. Irabazleek 1.000 euro patrikaratuko dituzte, bigarrenek 500, 3.enek 250, 4.enek 125 euro, Arkume eta antxumeak zozketatuz errifak ere izango dira.

## 'Kutsidazu bidea Ixabel'

Antzerki Garaiaren barruan gaur bertan izango da Herri Antzokian Gorringo taldearen antzezlan hau. Bi emanaldi izango diren arren jakin sarrerak jada aurrez salduta daudela. 20:00etan izango da lehena eta 22:15ean bigarrena.

## Galdaragileak

Inauteriak bertantxe ditugula iragarriz etorriko zaizkigu otsailaren 14an zingaroak herrira. Kanpamendu nagusia Garagartza Plazan ipiniko dute eta ondoren herriko kaleetan barna ibiliko dira euren kantu eta dantzekin.

Astebete igarota inauterien txanda izango da eta ez dute hutsik egingo Jakintza Ikastola, Alotza Haur Eskola eta Urdaneta Ikastetxeko haur eta gaztetxoen desfileek.

## Arkume eguna

Bertakoa den jaki goxoa bultzatu asmoz arkume eguna burutu zen joaneko otsailaren 7an. Lehenik eta behin 13 elkartetako sukaldarik arkumea prestatu behar izan zuten labean erreta. Epaimahaikoek behin dastaketak eginda, onena Argi Berri Elkarteko sukaldariek prestatutakoa zela erabaki zuten. Bigarren Larrun Arri sailkatu zen eta hirugarren Donostiako Euskal Giroa. Eguerdi aldera berauek dastatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Eta ohiko tragoxken ondoren bazkaria izan zen Beti Alai pilotalekuan.

## Errugbikoek burua tente

Ohorezko B mailan dihardu iaz igoera lortu ondoren Ayma Ordizia rugby taldeak. Denboraldia hasterakoan mailan sendotzea zuten helburu baina egun errealitatea bestelakoa da. Neurketak irabaziz hasi zuten lehen itzulia eta amaieran galdutakoek erakutsi zieten jokalari eta zaleei ez zela dena zirudien bezain erraza. Hilabetez partidarik jokatu gabe egon ondoren, ordea, irabazten hasi dira berriro ere eta momentuz bigarrenak dira sailkapenean.

## San Juan sua prestatzeko bilera

Otsailaren 27an, 20:00etan, Irriki elkartean, San Juan sua antolatzeko bilera egingo da. Aurten 30. urteurrena beteko du ospakizun honek eta zerbait berezia egitekotan dira antolatzaileak.

## Zerain

# Jende asko eta giro ederra era zaharreko erromerian



Jende ugari bildu zen pasa den otsailaren 1ean, igandea, Zerainen ospatu zen erromerian. Trikitilariek animaturik, arratsaldeko 6etatik 8ak arte ez zen izan hankei atsedenik emateko astirik. Jendeak dantzarako gogoa eta grina erakutsi zituen eta baita zangoak ederki mugitu ere. Fandango eta arin-arin tradizionaletatik hasi eta Kanadako dantzetaraino izan zuten nahiko aukera bertaratuek dantza egiteko. Haur, gazte, ez hain gazte eta zahar, denak animatu ziren festara. Eguraldia ere lagun izan zen igande arratsaldea alaitzeko eta jendez betetako Zeraingo plazak duela urte batzuetako erromeria batean geundela ematen zuen.

Erromeria hau urte honetan egingo diren 9etan lehenengoa izan zen. Aurkezpen gisakoa izan zen eta jende ugari bildu zen bertara. Kuriositatez, nahiz dantza egiteko gogoz. Erromeria hauek Euskal Herriko Trikitilari Elkartearen eta Zeraingo Udalaren ekimenez antolatu dira eta izan duen arrakasta ikusita gogotsu ekingo zaie datozenei ere. Datorren erromeria otsailaren 29an izango da ordu berean, arratsaldeko 6etatik 8etara. Antolatzaileek lehenengo honetan hainbeste jende espero dute datozenetarako ere.

*Ion Muñoa*



### Jabier eta Iker Aizpeolea museko txapeldun

Joan den urtarrilaren 31n Liztormendi elkartean jokatu zen Mus txapelketako irabazle Jabier Aizpeolea eta Iker Aizpeolea osaba-iloba zeraindarrak izan ziren. Finalean garaitu zuten bikotea Jose Ramon Urbizu eta Migel Azkona zegamarrek osatutakoa izan zen. Denera 19 bikotek parte hartu zuten. Txapelketa polita eta tentsio handikoa izan zen. Argazkian: Migel Azkona, Jabier eta Iker Aizpeolea (txapeldunak) eta Jose Ramon Urbizu.

### Inauteri giroan

Inauteri garaiarekn bat, Zeraingo Herri Eskolakoek jaia antolatu dute datorren otsailaren 23rako, astelehena. Festa haurren antzerki batekin hasiko da arratsaldeko 4etan Zeraingo plazan eta ondoren txokolatate jana izango da eskolako Guraso Elkartearen eskutik. Herri Eskolatik herritar denak gonbidatu nahi dituzte festan parte hartzera eta ahal bada mozorrotzera.



### Santa Ageda bezpera

Urteroko usadioari jarraituz, aurten ere herritar talde bat etxez etxe ibili zen kantuan eta eskean Santa Ageda bezperan. Hogei bat lagunetik gorako taldeak Zeraingo etxe guztiak pasa zituen eta denera 214,34 euro bildu zituzten. Diru hau Oa Kultur Elkartearentzat izango da eta proiektore bat erosteko erabiliko da. Parte hartzaileek eta Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkiete beren laguntza eman zuten herritarrei.

### Bolatokiaren inaugurazioa

Pasa den otsailaren 1ean bolatoki eraberrituaren inaugurazioa egin zen. Goiz partean herrikoen artean tiraldia jokatu zen eta ondoren, berritze lanetan auzolanean aritutako denentzat bazkaria izan zen Liztormendi elkartean. Tiraldian, denera, 8 urtetik 78 urte artera arteko 30 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte, emakumeek nahiz gizonezkoek. Irabazlea Aitor Zabalo gaztea izan zen eta bolalekuan, Zerainen tradizio handia duen kirol honen aire berria nabaritu zen. Helburua, bolaleku eraberritua bolari gazteen harrobi bihurtzea izango da.

## Lazkao

# Santa Ageda

Egun eder batean ospatu zen urtero bezala Santa Ageda bezpera. Arratsaldez ehundaka ume ibili ziren kalez kale aspaldiko koplei soinua eta bizia emanez. Gauean berriz, zaharragoak ikusteko aukera izan zen urtero bezala eta ohiturei jarraituz. Ikusmin eta animazio handia sortu zen eta hurrengo urterako makilak eta ahotsak zainduz berriro ere egun hau ospatzeko asmoarekin amaitu zuten.

### Rwanda taldearen eskertza

Aldizkariko eskutitzen atalean Rwanda taldeak bidalitako esker gutuna dago. Gaboneko ekitaldien balorazioa egiten da bertan.

### '25 urte torturapean'

Lazkaoko ezker abertzaleak ostiralean, otsailak 13, 20:00etan torturaren aukako manifestazioa egingo du plazan hasita. Larunbatean Donostian 17:00etan Boulebarretik hasita egingo den manifestaziorako ere deia zabaldu dute.

### Karate ikastaroa

Aurreko batean karate ikastaroa antolatu nahi zela eta deialdi bat egin zen. Honek erantzuna izan du eta 7-8 laguneko taldea sortu da. Ikastaroa larunbat goizetan izango da, 10:00etik 12:00etara. Ikastaroaren lehen eguna otsailaren 14a izango da. Interesatuok kiroldegian adierazi partehartzeko aukera zabalik baitago.

### Areto futbola

Errotaundiko mutilek ezin izan zuten neurketa irabazi beraien zaleen aurrean. Oraingo honetan 3 eta 5 emaitzarekin galdu zuten. Hurrengo neurketa Zarauzko Txanela taldearen aurka jokatuko dute larunbat arratsaldean.

### Futbola

Erregional mailako taldeak Azpeitin jokatu zuten pasa den larunbatean. Emaitzak ez zien batere mesede egin, 4-0 galdu baitzuten. Igoerako fasean direnez hurrengo neurketa irabazi beharrekoa izango dute. Larunbatean jokatuko dute etxean Ondarruren aurka.

*Aitor Tello*

## Zaldibia

# Mus txapelketa Zubi Burun

29. mus txapelketa azkarra jokatuko da otsailaren 21ean Zubi Buru elkartean, arratsaldeko 4,30etan. Izena egunean bertan eman behar da. Hiru sari banatuko dira: 1.arentzat 1000 euro, txapelak eta garaikurrak; 2.arentzat 500 euro eta garaikurrak; eta 3.arentzat, 250 euro.

### Ikastaroak

Hiru ikastaro martxan jarri dira dagoeneko. Margoketa ikastaroa asteazkenetan izaten da 19:00etatik 21:00etara; hari lanak, asteazkenetan, 15:00etatik 17:00etara; eta areto-dantzen ikastaroa, gaur bertan hasiko da, gaueko 10etatik 12etara. Sukaldaritzako ikastaroa ere hastekoa da baina oraindik eguna finkatu gabe dago.

### Eskiatzera

Asteburuan, eskiatzera joango da herritar talde bat Formigalera.

### Inauteriak

Eskolakoek inauteriak ospatuko dituzte otsailaren 20an. Arratsaldeko 2,30etan gelaz gela antzerkitxoak egingo dituzte. Aurtengo gaia, itsasoa da.

### Garazi Lizarralde saritua

Lardizabal herri eskolako Garazi Lizarralde Mendizabalek, Ibaialde 2003 lehiaketan saria jaso du. Akzesit bat zehazki esateko. 4 urtekoen gelan dabil Garazi. Otsailaren 6an jaso zuen saria Bilbon inauguratu berria den Aquariumean. Eskolak ere jaso du beste saritxo bat.


Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa
Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

ZUZENKI
AHOLKULARITZA
Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa
e txekin
www.txekin.net
Etxebizitzen salmenta: Legorreta Beasain Orendain
Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta:zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

## Mutiloa

# Kanposantu azpiko etxebizitzak

Otsailaren 6an egin zen Kultur etxean, herri mailako bilera bat, kanposantuaren azpi aldean, udaletxearen jabegoko lurretan eraiki nahi diren etxebizitzen inguruko informazioa lehen-lehenik herritarrei emateko. Bertan proiektuaren berri, eraikuntzaren berezitasunak eta abar eman ziren.

### Ikastaroa

Martxoan zehar egiteko, Zeraingo, Mutiloako eta Segurako udalek, Mendikoiren laguntzarekin, baserriko produktuak elaboratzeko ikastaroa antolatuko dute. Ikastaroak 9 ordu iraungo ditu eta teoria eta praktikak nahastuko dira. Leintz-Gatzagako Jakion enpresak emango du. Hiru udaletxeetan dago izena emateko aukera otsailaren 27aren aurretik.

### Pasa den asteburuko emaitzak

Ekitaldiz beteriko asteburua izan zen aurreko astekoa. Larunbatean izan ziren ekitaldi horiek. Batetik Aitz buru elkartean jokatu zen mus txapelketa. Irabazlea Luis Aranburu eta Jose M. Murgiondok osatutako bikotea izan zen. Bigarren tokian, berriz, Jose M. Mujika eta J.M. Murgiondo geratu ziren.

Egun berean Bolako Goierriko XVI. txapelketa jokatu zn Gurruntzain bolatokian eta bertan irabazle Joakin Izagirre segurarra izan zen.

Ekitaldiekin jarraituz, aipatu otsaileko zapatuan jokatuko dela, Ostatuak urtero antolatu ohi duen mus txapelketa. Elkartean bezalaxe hemen ere ondorenean afaria egingo dute hala nahi duten guztiek.

*Iñaki Ugalde*



### Santa Ageda bezpera

Herritar gazte talde ederra ibili zen otsailaren 4an, iluntze aldera herriko baserri guztiak kantuz alaitzen. Ohitura ederra da eta are ederragoa bildutako taldea horrenbestekoa izanez gero.

## Legorreta

# KZgunea martxan

Otsailaren 9tik Legorretako Kzgunea zentroak, Eusko jaurlaritza eta udalaren laguntzaz, bere nabigazio eta Internet hezkuntza zerbitzuak eskaintzen ditu. 16 urtetik gorako pertsonentzako doako zentroa da KZgunea. Korta eta Zapas Enparantza 3 helbidean dago KZgunea.

Otsailean zehar Kzguneko ordutegia 9:00etatik 13:00etara bitartekoa izango da eta martxoan 16:00tik 20:00etarakoa izatera pasatuko da. KZgunean Internet bidez edozein informazio mota bilatu nahi duenarentzat prest daude jada, nahiz eta ikastarorik egiteko izena emanda ez izan.

### Otsaileko ikastaroak

Otsailerako honako ikastaroak prestatu dira:

**Internet Kzgunea:** Interneteko oinarrizko ikastaroa, 20 orduko iraupenekoa. Otsailaren 16tik 27ra 9:00etatik 11:00etara.

**Nabusiweb:** Interneteko oinarrizko ikastaroa, 10 orduko iraupenekoa eta 50 urtetik gorakoei zuzendutakoa. 23tik 27ra 11:00etatik 13:00etara.

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK
sukalderik goxoenak
Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA
Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

## Arama



# KZguneko otsaileko ikastaroak

Urtarrilean hasiera goizeko ordutegiarekin eman bagenion, otsaileko jarraipena arratsaldekoa izango dugu. Kurtsoak arratsaldeko 4etatik 8etara izaten dira.

20 orduko ikastaroa, otsailaren 11tik 26ra izango da, 18:00etatik 20:00etara.

10 ordukoa berriz, 50 urtetik gorakoentzat oinarrizko ikastaroa, otsailaren 23tik 27ra 16.00tatik 18.00tara.

Badirudi jarrera ona izan duela internetaren etorrerak Aramako herrian ere. Beraz, aurrera jarraituko da ikastaro hauekin; ikasteko gogoz dagoena animatu dadila lehen bait lehen izena ematera.



## Herriko gazteon bidaia

Aste Kulturala dela eta, Aramako udaletxeak bertako gazteentzako bidaia antolatu zuen urtarrileko 24-25 aste bukaerarako. Hasiera batean, gazte ugarik izena eman zuten baina azterketak zirela medio sei pertsona besterik ez ginen joan.

Aian izan ginen, nekazal turismoko etxe batean, bertatik paraje oso politak ikusten ziren, Orio, Zarautz eta, Donosti eta Irungo zati bat, baina Euskal Herrian ohikoa den bezala euria izan genuen lagun eta horrek igandean genuen irteera oztopatu zigun. Beraz, bertako parke naturala ikusi gabe geratu ginen.

Hala ere, ez ginen geldirik egon eta honelako aukera udalak eskainirik, iritsi ginen lehen egunean Aia herria bisitatu genuen. Etxe bertan ere oso ongi egoten zen, su baxuaren ondoan baina arratsaldean Oriora oinez jaistea erabaki genuen eta primeran ibili ginen.

Igande arratsaldean pena handiz bueltatu ginen etxera, bertan zegoen lasaitasuna, jende jatorra (etxeko andrea) eta etxe elegante hura bertan utzi behar genuelako.

Besterik gabe, Aramako udalari eskerrak ematen dizkiogu horrelako aste bukaera zoragarri bat eskaintzeagatik eta ea noiz izaten den hurrengo irteera.

*Aitziber Albisu*

## Itsasondo

# Eskulan ikastaroa

Otsailaren 18an hasiko da eskulan ikastaroa. Karmen Soto izango da irakaslea eta udaletxe gaineko aretoan, asteazkenetan izango da, arratsaldeko 2,45etik 4,45etara. Parte hartu nahi duenak udaletxean eman dezakezue izena.

### 'Idatziak' liburua salgai

Euskaraz idazterakoan izan ditzagun hainbat zalantza argitzen laguntzeko 'Idatziak' liburua salgai dago Lurdesen dendan, 3 euroren truke.

### Arropa zaharrak biltzeko zerbitzu berria

Otsailaren 6tik aurrera, arropa zaharrak biltzeko edukinontzia dugu herrian, pilotalekuaren aldamenean. Arropa zaharrak poltsa itxietan sartu behar dira.

### Mikel Gaztañaga 6 Orduetan

Aurten ere Mikel Gaztañaga herritarrak Euskadiko 6 Orduetan izan zen onenen artean lehian. Elorriaga izan zuen bikotelagun. Ohi bezala, alboan, izan zituen Gaztañagak herriko jarraitzaileak.

# Talo jana otsailaren 14an

Hilbeltzean murgilduta gauden honetan, eguraldiak bestelakorik aditzera ematen badigu ere, hilabete honetan ohiturazkoa den moduan, urteroko talo-jana antolatzeari ekin diote Joxemiel Barandiaran Eskolako Gurasoak. Otsailak 14, ostiralean, iluntzeko 8etan egingo dute, eskolan bertan. Joateko asmoa duen orok, dagoeneko txartelak erosiko zituen, epea otsailak 12, ostegunean amaitzen zen eta. Taloez gain, herriko trikitilariekin ere afalondoa gozatzeko aukeran izango dira gerturatzen diren guztiak. Gogoan izan, eskuratzen duten dirua, ikasturte amaierarako irteeretarako erabiltzen dutela.

## 'Idatziak' liburuxka udaletxean

Gure hizkuntza zabaltzen eta normalizatzen lagundu asmoz, Debagoienako udaletako euskara zerbitzuek, liburuska bat prestatu dute. Ahalik eta modurik errazenean, euskararen eguneroko jardunerako baliagarri dena. Bertan, besteak beste, eskutitzak idazteko erizpideak, gonbitak, zorion agurrak, eskolako idatziak, auzokideen arteko idatziak, udalarekiko harremanetarako idatziak eta abar nola egin behar diren agertzen da.

Dohan izango da eta aleak bukatu bitartean nahi dutenek eskura izango du Udaletxean bertan.

## Idiazabalgo herri krosa

Urteroko legez, ohitura da Idiazabalgo festen barruan herri krosa antolatzea. Partehartzaile ugari izaten dituen kros honetan, gure herriak ere ordezkari ugari izan ditu bertan. Horien artetik, Jon Ander Albisu nabarmendu beharrean gara, mutil infantilen kategorian San Gregorioko mutiko hau izan baitzen garaile. Gustura igo zen Jon Ander podium-era.

## Astebukaerako neurketak

Etxean jokatuko dute astebukaera honetan gure bi ordezkariek. Mutilek, Inter. Intxaurrondo hartuko dute. 17. jardunaldiari dagokion partida izango da. Neskek 15.jardunaldia dute jokoan, eta La Salle mendean hartzen saiatuko dira. Biek ala biek ere etxean jokatzearen abantailaz baliatu nahi dute 3 puntuak etxean gera daitezen.

## XIV. Beasain idazlan lehiaketa

Joan den larunbatean, otsailak 7, aditzera eman zen XIV. Beasain idazlan lehiaketako sarituen berri. Hiru herritar izan dira sarituak: Aizaga Zeberio, Oier Zurutuza eta Aitzol Munduate. Hirurak ere, 16-18 urte bitarteko eskualdeko ikasleen artean, Txindoki-Alkartasuna institutuaren izenean. Aizaga, San Gregorioko neskatila, hitz-lauz arloan saritua izan da, Oier Zurutuzarekin batera. San Gregorioko mutil honek lortu duen sari bakarra ez da izan, bakarra gutxi iruditu nonbait eta olerkian ere beste sari batekin joan da etxera Oier. Olerkian baita ere, saria egokitu zaio Aitzoli. Aipatu behar da, Oier eta Aitzolek bigarren urtez jarraian eskuratzen dutela sari bana lehiaketa honetan.

*Doltza Barandiaran*

## Errepide nagusia irekita dago

Pascual iturri inguruan obra batzuk egin behar zirela eta, Ubarritik hasi eta Mediku-etxea bitarte, astearte eta asteazkenean, errepide nagusia etenda egon zen. Bi egun hoietan, zirkulazioa Altzanipe-Intxaurrondo atzeko bidetik bideratu zuten.

Udaletxe aurreko autobus geltokia ere, Altzanipeko behealdeko kantoira pasa zuten. Egin beharrekoak bukatutzat eman dituztenez, berriro ere bere onera itzuliko da guztia. Hau da, errepide nagusia ireki da eta autobus geltokia udaletxe aurrean dago beti bezala.

## Omenaldia Inaxio Aierberi (1949-2000)

Ostiral honetan, hilak 13, iluntzeko 8etan, hitzaldia eskainiko dute 'Tortura eta egoera politikoa' gaien inguruan. San Gregorioko elkargunean izango da, Arnaldo Otegi, Joxan Agirre eta Xanti Iparragirre hizlari izango direlarik. hurrengo egunean, larunbatean, hilak 14, lore eskaintza egingo zaio orain dela 4 urte gure artetik joan zen Inaxio Aierberi. Goizeko 11etan elkarretaratzea egingo da Inaxio Aierbe enparantzan, kotxez 'Axio'-ren omenezko monolitora joateko, Lizarrusti aldera. Ondoren, Inaxio Aierbe enparantzatik oinez, Lauzierrekara abiatuko dira.

Honekin batera, gonbitea luzatzen dute, arratsaldean Donostian antolatu den manifestaldira joateko. '25 urte torturapean aski da' lemapean egingo da, 5,30etan Antiguon.



AUSOEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- Tximini eta egurrezko ekonomikak
- Berogailuak
- Iturgintza
- Zeramika erakusketa
- Bainuko altzariak
- Erreforma osoak



## Idiazabal

# Mendi Elkartearen urte osorako irteerak

Mendi Elkarteak urte guztirako ibilaldiak antolatu ditu. Lehendabiziko irteera, otsailaren 8an egin zen La Lezera. Hortik aurrera beste bederatzi irteera daude antolatuta abendua bitartean. Batzuk goizean egiteko modukoak, egun osorako txangoak ere badaude, eta urteroko moduan asteburako irteera ere aurreikusita dago.

Hurrengo ibilaldia, martxoaren 28an egingo dute Arabara Izkiko parke naturalera. Egun osoko ibilaldia izango da eta inguruko herriak bisitatuko dituzte. Apirilerako orientazioa ikastaroa antolatu dute, maiatzerako Larrunera egun osoko irteera eta ekainean Nafarroa aldera Saioara joateko asmoa dute. Uztailean Piriniotera asteburu pasa joateko proposamena ere egiten du Mendi Elkarteak. Guztira 10 irteera antolatu dituzte 2004 urterako.

### Kirolak

Kiroldegian aritzen diren taldeek aurreko asteburuan izandako emaitzak hauek dira:

**Saskibaloia: mutil benjaminak:** Aita Iparragirre 8 - S. Benito 26; **neska benjaminak:** Aita Iparragirre 10 - S. Benito 20; **mutil alebinak:** Aita Iparragirre 12 - jakintza 58 eta **neska alebinak:** Aita Iparragirre 24 - Urdaneta 20.

**Areto Futbola:** Loinazpe / Izal 2 - La Salle 2.

**Larunbat honetarako partidak: Saskibaloia: mutil benjaminak,** Aita Iparragirre - Laiotz (9:30ean Zelaan); **neska alebinak** Aita Iparragirre - Jakintza (9:30ean Zelaan).

### Sanblasak

Iaz Sanblasek elurra eta eguraldi goibela ekarri zituen, aurten kontrakoa gertatua da. Aspaldiko urteetan ikusi gabeko eguzkia eta eguraldi polita izan da jaietan. Iaz izandako jende beherakadari ere buelta eman zaio eta asteburuan behintzat jendez beteta izan da Idiazabal.

Egitarauan aurreikusitako ekitaldi guztiak egin dira, eta gehienetan jendearen erantzuna ona izan da. Bereziki, kirol ekitaldietan. Goitibeherak, eta herri kiroletako apustuan aparteko giroa sortu zen. Idiazabal eta Orendainen arteko lehia, gutxigatik baina, kanpokoek irabazi zuten.

Oraindik ez da Sanblasetako balantze ofizialik egin, baina antolatzaileak, herritarrak etra tabernariak gustura egoteko moduko jaiak izan direla esan liteke.

### Ibilgailuen zerga

Udalaka jakinrazi du mugikortasuna murriztuta duten pertsonentzat moldatutako ibilgailuek ez dutela zergarik ordaindu behar. horretarako behar diren agiriak Udaletxean aurkeztu behar dira otsailaren 19a baino lehen.

*Xabier Urteaga*

## Zegama

# Ostatua berriro lehiaketara

Zegamako Ostatua berriro lehiaketa publikora atera da. Interesatuek beraien eskaintzak Udaletxean aurkeztu ahal izango dituzte, eta horretarako azken eguna otsailaren 18 izango da.

### KZgunea

Kzguneak hainbat ikastaro eskaintzen ditu gaur egun ere, eta ikastaro hauetan parte hartu edo informazio gehiago lortu nahi duenak, deitu 943160238 telefono zenbakira edo Kzgunera joan ostiraletan 9tatik 11etara. Ikastaroak dohainik izaten dira. Bestalde, Kzgunearen ordutegia ondorengo hau da: goizez 9etatik 14etara (giltza udaletxean egoten da), eta arratsaldetan 5etatik 7etara (giltza liburutegian). Tutorea ostiraletan 9tatik 11etara egoten da.

### Otsailak 20, ostirala: inauteri jaia

Ostiral mehe egunean, Aitxuri Herri Eskolako haurrak 14:00etan mozorroturik aterako dira herriko kaleetan zehar, eta ondoren 16:00etan, Guraso Elkarteak antolaturik txokolate jatea izango da bertaratutako guztientzat.

### Futbola

Aitzgorri Futbol Taldearen partiduak: Kadeteak 1. maila, otsailaren 15ean, Aitzgorri F.K. - Urolaren aurka. Otsailaren 29an, Billabona - Aitzgorri F.K. aurka.

### Bideo emanaldia

Igandeetako bideo emanaldien barnean, otsailaren 22an, Kultur Etxean 17:00etan 'Atcantis el regreso de Nilo'.

*Edurne Albizu*

# Segura

## Bola

**Idiazabalgo San Blas saria.** Xepeiño Agirrek irabazi zuen (37 birla). **Goierriko txapelketa.** Otsailaren 7an Mutiloan jokatu zen lehen saioa Joakin Izagirrek irabazi zuen (48 birla).

## Futbola

**Asteburuko emaitzak: Errejionalak:** Segura 2-1 Zarautz. **Jubenilak:** Segura 0-0 Beasain. **Kadeteak:** S. Herrera 2-0 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 0-7 Lagun Onak.

**Asteburuan etxean. Zapatuan: Kadeteak:** Aizkorri-Urola (11:00). **Errejionalak:** Segura-Zumaiako (15:30). **Jubenilak:** Segura-Hamaikak bat (17:15). **Igandean: Alebinak:** Ostadar-Aizkorri (11:15).

## Labur-labur

● **Segurako tarta.** Beasaingo Iñaki Ibañez gozogileak okasio berezietarako egin izan duen tarta, merkaturatu egingo da. Segurako turismo bulegoan nahiz Beasaingo Julki gozotegian ingura daiteke.

● **Eneko Agirrezabal.** Euskadiko txapeldunorde geratu zen 1500 metrotan, pistan, urtarrilaren 31n, Durangon. Euskadiko kros txapelketan, berriz, 4. egin zuen, otsailaren 8an, Zornotzan.

● **Beasaingo XIV. idazlan lehiaketa.** 2. saria: Anaitz Goia, prosan. Aipamen bereziak: olerkian, Asier Izeta eta prosan, Ioritz Arizkorreta eta Ane Arrieta.

● **Koruaren entsaioak.** Aste Santurako, asteartero, 19:30ean Kultur etxean.

● **Zikloturismokoen bilera.** Gaur, otsailak 13, 19:30ean Kultur etxean. Bertan, kirol elastikoen aukeraketa egingo da.

● **Yoga ikastaroa.** Gaur, otsailak 13 hasita, maiatzaren 31 arte. Astelehenetan eta ostiraletan 19:15etik 20:45era, Osasun etxean. **Saloiko dantzak** ikastarorako izen emate epea luzatu egin da.

● **Kirol eskolarra. Pelota.** otsailaren 14an, 11:30ean hasita, benjaminen bi partidu. **Mendi irteera:** otsailaren 22an, Herniozabalera.

● **Musika eskola.** Otsailaren 17an, 18:00etan ikasleen kontzertua aterpetxean.

*Joseba Telleria*

# Inauteriko hartzaren etorrera

## Otsailaren 20an, ilberri egunez

Iaz, jatorrizko inauteri eguna berreskuratuta, aurten ere inauterietako ostiralean kaleratuko da hartz-zulotik esnatu berria den animalia. Elorri K.E.-ekoak dira, udalaren laguntzaz festa hau antolatzen dutenak. Gerra Zibilaren aurreko ohiturari jarraituz, hartzak, berari katez eusten dion hartzazainak eta uxatzaileek herriko kaleak zeharkatuko dituzte txistulari, dantzari eta mozorrotutako herritarrez lagundurik. Irteera, 18:30ean errementariko perratokitik.



*Hartza, hartzazaina eta uxatzaileak, iaz.*

### Herritarrei eskaera

Antolatzaileek, herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte mozorroturik parte har dezaten. Bide batez, garai batean egiten zen modura, etxeetako leiho-balkoiak, tabernak eta eskaparateak inauteri erara (serpentina, globo...) dotoretzeko deia ere egiten dute.

### 2004ko inauteri eguna

**15:00etan:** Laiotz Herri Eskolakoen mozorro festa plazan. Ondoren, txokolate jana, erraldoi eta buruhandiak.

**18:30ean:** Hartza, hartzaina eta uxatzaileen irteera. Amaiera plazan, herriko dantzariekin. Antzar Gazteak txaranga. Mozorrotuen poteoa. Afariak koadrilaka eta mozorro gaua tabernetan.

# A ze porrua!



*Inazio Urbizuk eskuetan duen porruak hirutxikiko botilaren lodiera du. Hostoak moztu ondoren, kilo eskaseko pisua zuen.*

1,85 zentimetroko altuera, 24 zmko diametroa eta kilo eta erdiko pisua zuen porrua eten zuen Inazio Urbizuk, Lastalan duen baratzean, urtarrilaren amaieran. Migel Goikoetxeak azken urteetan Arantzazutik ekarri ohi dion hazia, martxoan ereinda, porru landarea ekainaren 10ean landatu zuen. Inaziok dioenez, porru hazia apartekoa izateaz gain, ximaur-lurrez laguntzeak eta izotz gutxi egin izanak ere eragin dute halakoak egiteko orduan.

# Herri eskolaren X. kultur astea

**Otsailak 16: 15:30ean,** Pello Añorga ipuin kontalaria.

**Otsailak 17: 11:50ean,** 'Hurbileko erresuma' txotxongiloak. **15:15ean:** Musika eta bertso emanaldia. **19:00etan:** Nairobitarrak Kultur Taldearen 'Milioi bat kilometro ur arras' ikuskizuna Kultur Etxean.

**Otsailak 18: 10:00etan,** haurren jaialdia. **14:30ean:** 'Anorexia eta bulimia'ri buruzko hitzaldia.

**Otsailak 19: 10:15ean,** Arotz Eneako monitoreek antolatutako jarduerak. **14:30ean,** beheko eskolan ume jolasak. **15:00etan,** LHko 2. eta 3. zikloko gurasoentzat musika eta antzerki ikuskizuna goiko eskolan.

**Otsailak 20: 15:00etan,** 'Hippien' festa plazan. Txokolate jana. **17:30ean,** buruhandiak. **18:30ean,** Hartza kalez kale.

**Otsailak 21: 10:00etan,** herri kirolak plazan. **16:00etan,** haurrentzat puzgarriak, eskulanak, tailerrak eta merienda plazan. **22:00etan,** Ardixarrenean Donato Goyenechek 'Danborradaren erritmoan' kontzertua.

**Otsailak 22: 8:30ean,** mendi irteera Herniozabalera. **Arratsaldean,** bideo emanaldia Kultur etxean.

Beasain



# XIV. idazlehiaketako sariak banatu dira

Udaleko Euskara-batzordeak antolatutako XIV. Beasain Idazlan lehiaketaren sarimatea otsaialren 7an egin zen Udaletxeko Batzar Aretoan. 157 idazlan aurkeztu ziren eta horietako 41 saritu dituzte maila desberdinetan.

● **A mailan, 1986-1987an jaioak: Olerkian:** 1. saria, Oier Zurutuza, 2. saria, Ainhoa Jimenez. 4 aipamen-sari, Aitzol Munduate, Garazi Zabaleta, Asier Izeta eta Maitane Chavesentzat.

**Hitz lauz:** 1. saria, Aizaga Zeberio, 2. saria, Anaitz Goia, 3. saria, Aiora Garmendia eta beste 4 sari, Nagore Amenabarro, Ainhoa Jimenez, Oier Zurutuza eta Ainara Artzelusentzat.

● **B mailan, 1988-1989an jaioak:** 1. saria, Oihana Arratibel, 2. saria, Leire Saez, 3. saria, Jokin Gartzia, eta beste 4 sari, Ane Arrieta, Ioritz Arizkorreta, Garazi Dorronsoro eta Mikel Lizarazurentzat.

● **D mailan, 1990-1991an jaioak:** 1. saria, Maialen Garcia, 2. saria, Ihintza Mendizabal, 3. saria, Andoni Urteaga, eta beste 4 sari, Eneko Etxeberria, Irati Martinez, Irati Romero eta Alberto Iparragirrerentzat.

● **E mailan, 1992-1993an jaioak:** 1. saria, Ainhoa Aizpuru, 2. saria, Joseba Escudero, 3. saria, Eñaut Irastortza, eta beste lau sari, Ane Garcia, Leire Goia, Oihana Gonzalez eta Garazi Egurenentzat.

● **F mailan, 1994-1995an jaioak:** 1. saria, Ainhoa Miguel, 2. saria, Maialen Perez, 3. saria, Ane Iturzaeta, eta beste 4 sari, Larraitz Goikoetxea, Maialen Etxeberria, Laida Pino eta Arantzazu Izagirrerentzat.

***Nekane Altuna***

## Beasain Jaietan urtekaria

Loinatz Jaietan, lehen larunbatean, kalean izaten dugu Beasain Jaietan urtekaria. Beti Bizi Elkartea arduratzen da aldizkari hau aurrera ateratzen. Aurtengoa 26. urtea izango da. Aldizkari hau kalera irten dadin, ordea, aurrez egin behar izaten da lana eta dagoeneko herritar guztiei luzatu zaie gonbitea Beasainen inguruan artikuluren bat idazteko edo argazkiak aurkezteko ere.

1979az geroztik argitaratu diren aleetan, euskarak izan duen presentzia ez da nahi adinakoa izan. Gai batzuetan gainera, hutsune nabariak ageri dira: historian, kiroletan, sukaldaritzan eta umorean bereziki. Iaz, euskarazkoak % 27,94 izan ziren eta espainierazkoek lehen bezain nagusi jarraitzen dute, % 55,88.

2004. urte-hasiera honetan, % 60tik gora dira Beasainen euskaldunak eta beste % 12 inguru ia-euskaldunak. *"Datu horiek, euskaldunok euskaraz lan gehiago egitera behartzen gaituzte. Are gehiago Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian jarri eta gauzatu nahian gabiltzanean"*, diote Euskara Batzordekoek. Beraz, idatzi eta besteek idatziak ere bildu, direla artikuluak, olerkiak, bertsoak edo nahi duzuena eta Udaleko Euskara-zerbitzura bidali. Zuzenketarik egin behar bada, prest daude behar direnak egiteko. Areago oraindik, euskaraz idazteko prestakuntza-ikastaroren bat egin nahi bazenute, Udal Euskaltegia prest dago neurri-neurrira letorkeen ikastaro labur bat antolatzeko.

Idazlanak, ahal dela, otsailaren azkenerako entregatu eta disketean edota posta elektroniko bidez bidaliz gero, hobe. (Helbide elektronikoa: euskera@beasain.net)

## Odol ateraldien balantzea

Odol emaileen ordezkaritzak jakinarazi digunez, 2003 urtean, 991 odol ateratze egin ziren. 17 saio egin ziren eta bataz besteko emaitza ona dela adierazi dute: saio bakoitzeko 58,29 ateratze. Dena den, 2002ko datuekin alderatuz gero, 33 odolateratze gutxiago egin ziren iaz. Martxoa eta iraila dira hilabete onenak odol ateratze kopuruari dagokionean. Bataz-beste 124 pertsonek eman baitute odola. Apirila eta ekaina dira berriz, jendea odola ematera gutxien hurbiltzen den hilabetea. 50 odol ateratze egin ziren bataz beste. Emaile gehienek urtean bi aldiz ematen dute odola, 283 emailek. Urtean 3 edo 4 aldiz ematen duten emaileak berriz 56 dira. 46 pertsonek eman zuten alta eta 79k berriz baja.

Hurrengo odol ateratzea otsailaren 17an egingo da Urbietxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera.

## Neguko II. Bertsopaper Lehiaketa

Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak, Bertsoaren Beasaingo lagunak taldearekin antolatu duen II. Bertsopaper lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 22a izango da. 2 talde edo adinetan banatua dago: A taldean, 18 urte baino gutxiago dituztenak. Gutxienez 5 eta gehienez 8 bertso aurkeztu beharko dituzte. B taldean, 18 urte edo gehiago dituztenak. Gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso aurkeztu beharko dituzte. Nahi adina bertso-sorta bidal daitezke, gai eta doinu librean. Epaia, martxoan emango da Beasainen burutuko den bertsosaioaren barruan

Beasaingo ikastola

Ikastolen Elkartea

*Zergatik hautatu Andramendi ?*

- *Ikastolen mugimenduan txertatutako irakaskuntza proiektua duzulako.*
- *Gurean umeak euskaldun direlako, eta euskaltzale.*
- *Hiru urterekin ingelesa ikasten hasten direlako.*
- *Haur Hezkuntzatik aurrera musika klasikoa, folklorea eta ordenagailuetan trebatzen hasten direlako.*
- *Haur Hezkuntzan irakurketa eta idazketa goiztiarra lantzen dugulako.*
- *Zerbitzuak (haurtzaindegia, jangela, udalekuak eta tailerrak) hezkuntza proiektuan txertatuak ditugulako.*

*Sortzetik izatera zoriontsu eta osasuntsu hezten ditugulako*
*.... eta gure haurrek belarrira xuxurlatuko dizkizuten beste arrazoi guztiengatik.*



# *BERME OSOZ*
# *0-12 urte*

## Beasaingo Ikastolan

25 beasain 01 andramendi. beasaingo ikastola

Andramendi. Beasaingo Ikastola - Urbialde 2 z/g - 20200 Beasain
E-posta: beasain@ikastola.net

## ZINEA

### GOIENIZ:

**Otsailak 19: 'Noviembre',** Usurbe Antzokian, 21:00etan.

**Otsailak 26: 'Open Hearts',** Usurbe Antzokian, 21:00etan.

### LEGORRETA:

**Otsailak 26: 'Sweet sixteen',** Herri antzokian, 20:30ean.

### BEASAIN:

**'Elf',**
otsailak 14, Usurbe Antzokian, 17:00etan. Euskaraz.

**'El Cid Kondaira',**
otsailak 21, Usurbe Antzokian, 17:00etan.

### ORDIZIA:

**'Elf',** larunbata 14, 19:30ean eta igandea 15, 16:45ean.

## GOIENIZ

### 'Noviembre'

*Achero Mañas*
*(Espania, 2003)*

Alfredo Madrilera iritsi da, txotxongilo bat eskuan eta anaia elbarria gogoan, arte dramatikoa ikasteko asmoz. Eskolako ibilbidea motza izango da, bertan ez baitu nahi zuena aurkitu eta kalera joko du erantzun bila. Hortik sortuko da Noviembre antzerki talde independentea, librea eta doakoa; helburua: ikuslea antzezlanean barneratzea, ikusle soil izan ez dadin; mezua: mundua aldatzea, errotik, komunikazio osoaren ideiatik abiatuta. 40 urte beranduago, protagonistek kameraren aurrean haien ekimenak, asmoak eta ideiak zertan gelditu ziren kontatuko dute, filmari dokumental tankera emanez.

## bestelakoak

### BEASAIN:

*Otsailak* **17**, Joseba Ramirezen eta Arantxaren ipuin kontaketa saioa 18:00etan, Udal Bibliotekan.

### SEGURA:

*Otsailak* **16**, Pello Añorga ipuin kontalaria, 15:30ean, Eskolako goiko aretoan.

*Otsailak* **17**, 'Hurbileko erresuma' txotxongilo emanaldia, 15:15ean, Eskolako goiko aretoan.

*Otsailak* **17**, Nairobitarra Kultur Taldearen 'Milioi bat kilometro ur arras' ikuskizuna, 19:00etan, Kultur etxean.

## musika

### ORDIZIA:

*Otsailak* **14**, Fliter eta Txinaski taldeen kontzertua Gaztetxean, 22:30ean. Sarrera: 3 euro.

### SEGURA:

*Otsailak* **17**, Aterpetxean, 18:00etan, Tobera musika eskolakoen bi ekitaldi: batetik, musika-hezkuntzako ikasleen erakustaldia eta bestetik, inauterietako kontzertua musika-tresna ezberdinetako ikasleen eskutik.

*Otsailak* **21**, Donato Goyenetxeren 'Danborren erritmoan' kontzertua, Ardixarrenean, 22:00etan.

## hitzaldiak

### SEGURA:

*Otsailak* **18**, Anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldia, 14:30ean, eskolan.


"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"

OKINDEGIA GARONA

K. Nagusia 35 — ☎ 943 88 77 58 — BEASAIN
Elosegi, 14 — ☎ 943 88 72 79 — LAZKAO
Sta. Maria, 19 — ☎ 943 16 00 44 — ORDIZIA



Zorion Insaustiren laguntzaz
Aurikuloterapia
Iriodologia
Dietetika
Senda belarrak

Oreka
Dietetika eta medikuntza naturala
☎ 943 88 13 37
☎ 605 769 653
oreka
Kale Nagusia, 8 ORDIZIA

MUGICA 19

MUJIKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

## antzerkia

**ORDIZIA:**

*Otsailak* ***13***, Antzerki Garaiaren barruan, Gorringo taldearen 'Kutsidazu bidea, Ixabel', Herri antzokian, 22:15ean. Euskaraz.

*Otsailak* ***27***, Antzerki Garaiaren barruan, Kanpingags taldearen 'Bazen behin... gutxi gora behera', Herri antzokian, 22:15ean. Euskaraz.

## erakusketak

**BEASAIN**

***Otsailaren 20an hasita,*** Javier Merinoren pintura erakusketa, Usurbe antzokian.

***Otsailaren 21ean hasita,*** M. Victoria Iparragirreren pirograbatu erakusketa, Aterpe tabernan.

**ORDIZIA:**

***Otsailaren 27ra arte,*** 'Haur poesia' erakusketa, Barrenan.

## mendi irteera

**BEASAIN:**

*Otsailak* ***22***, Beasaingo Mendizaleak: Uzturre.

**ORDIZIA:**

*Otsailak* ***15***, Ordiziako Mendizaleak: Murumendi-Santamaña.

*Otsailak* ***22***, Ordiziako Mendizaleak: Andoain-Tolosa.

## Kaldereroak Ordizian

Bihar, otsailak 14, gaueko 10,15etan, kaldereroen konpartsa aterako da Ordizian. Inauteriak datozela iragarriko dute kaldereroek.

## Txalaparta ikastaroa

Ordiziako Gaztetxean txalaparta ikastaroa izango da otsailaren 14tik aurrera, larunbatetan, goizeko 11,30etan.

## Kultur sorkuntza lehiaketa

Aste Santuan Itsasondon egitekoa den Gazte Topagunearen barruan, kultur sorkuntzaren inguruko lehiaketa antolatu dute. Euskaraz aurkeztu behar dira lanak. Gaia: Gaztedia askea. Ordiziako Herrikoa tabernan utzi behar dira lanak otsailak 28 baino lehen. Genero ezberdinetako lanak aurkez daitezke: literatura, laburmetraia, arte plastikoa, argazkigintza, muralak, musika. Gazte Topagunean ikusgai jarriko dira lanak.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

***Astegunetan:*** Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.
***Otsailak 14-15:*** Laurnaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943881828.
***Otsailak 21-22:*** Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

AMEBI



Sagardotegia
✆ 943 16 25 23
Zubierreka,9 LAZKAO

IKASTEK AKADEMIA
Goierriko akademia integral bakarra.
Hezkuntzako profesionalek zuzendua.
Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120 www.ikastek.net

ESKOLA LAGUNTZA
- Gai eta maila guztiak
- Banakako atentzioa
- Talde txikiak

IKASKETA ARAZOAK
- Errendimendua
- Irakurritakoaren ulermena
- Idazmena
- Ohiturak

GOIERRI ESKOLA
- Unibertsitate-maila
- Batxilergoa
- Moduloak

Goierritarra etxean jasotzeko laguntzaile txartela
Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

**Izen-abizenak:** ..............................
**Helbidea:** ..............................
**Herria:** .................. **Tfnoa.:** .................. **NAN:** ..................
**Kontu zenbakia** (20 digitu): ..............................
**Bidali txartel hau helbide honetara:** Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia

# Debaldeko iragarkiak

## Etxebizitzak

### salgai

➡ Pisua salgai Ordizia erdigunean. Eraikuntza berria. 90 m². 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea jarrita. Garaje itxia eta trastalekua aukeran. 630608227. Arratsaldetan deitu.

➡ Etxebizitza salgai Legorretan. 665706452.

➡ Zegamako erdigunean pisua salgai. Sukaldea, bainua, egongela, 3 logela eta trastalekua. 699846417.

### erosi

➡ Etxebitzia txikia, 2 logelakoa, erosiko nuke Ormaiztegin. 629452053.

➡ Ormaiztegin pisua erosiko genioke partikular bati. 679298932.

➡ Zaldibian pisua erosiko genioke partikular bati. 630375147.

### elkarbanatu

➡ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

### errentan hartu

➡ Bikote batek etxebizitza alokairuan hartuko luke Beasainen. 658724907. Eneko.

### errentan eman

➡ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urederraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

## Baserriak

### salgai

➡ Baserria eta borda salgai Beasainmendin. 12 Hako lursailarekin. 943180263 - 943180280.

## Garajeak

### errentan eman

➡ Lazkaon, Jose Lasa kalean, lurrazpiko garajea alokatzen da. 21.00etatik aurrera deitu. 943885574.

## Ibilgailuak

### salgai

➡ Opel Corsa, BTN matrikuladuna, salgai. Gasolina. 943801127 - 943801269.

➡ Opel Frontera 2.3 td salgai. SS-AP. Oso ondo zaindua. Prezio interesgarria. 669310202.

➡ Suzuki motorra salgai. 7.000 km dauzka. 943084044.

➡ Renault 19, diesela, salgai. 5 atekoa. SS-AM. Garajean egondakoa. 626703606.

➡ Volkswagen Transporter 2.5 tdi salgai. 102 zaldi. Atzealdean ate bikoitza. Egoera onean. 9.000 euro. 670672584.

➡ Seat 600 autoa salgai. 615793937. Elena.

## Animaliak

### opari

➡ Txakurkume jaio berriak oparitzen ditut. 645710111.

### kruzerako

➡ Pastor aleman txakurra, arra, kruzerako eskaintzen da. 677022047.


BAKAS
ARROPADENDA
- MISS SIXTY
- LUXURY
- KILLAH BABE
- SESSUM
- ...
AZKEN PREZIOAK!
Tel: 943 88 79 92
Garagarza plaza 3
20240 ORDIZIA

IÑAUSTI
KARROZERIA
N-1 errepidea, lurre auzoa
✆ 943 88 43 01 OLABERRIA

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97
● Lunbago, Ziatika, Hernia Diskal
● Zerbikalgia, Zefalea, Migraina, Artrosis.
● Tendinitis, Kirol Lesioak.
Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala
Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioa, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak


Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

## Bestelakoak

### salgai

➡ Errepideko txirrindua salgai. 48 neurria. Hiru plato eta grupo Campagnolo. 943883895. Zacarias.

➡ Aiwa 305 errezeptorea, dolby digital eta dts salgai. 5 x 70 watio. 169 euro. 658724974.

➡ Salvat entziklopedia salgai. 943882278-635747301.

➡ Bigarren eskuko konjeladorea salgai. Lau kajoi ditu. Altuera: 85 zm. Zabalera: 52 zm. Sakonera: 60 zm. 50 euro. 600362143.

➡ Arropa dendako altzariak salgai: mahaiak, ispiluak, bitrinak, manikiak... 600071852.

➡ Bi mountain bike salgai. Gutxi erabiliak. Bakoitzak 65 euro. 943085926 - 630420719.

## Lana

### eskaerak

➡ Beasainen zerbitzaria behar da. Euskalduna, jatorra eta lanerako gogoa duena. 616698236.

➡ Gaintzako Kale Txiki tabernan zerbitzaria behar da. 943886243.

➡ Baserri lanetarako langilea behar da. Kontratua egingo da. 943161244. Goimen.

➡ Beasainen, emakume bat behar da, goizetan, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943027962.

➡ Zerbitzaria behar da asteburuetarako. Euskalduna. Esperientziaduna bada hobe. 943880044.

➡ Neska edo emakumea behar da, goizetan, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 659802645.

➡ Gida baimena duen langile bat behar da. 943801107 - 645713222. Joxe,

### eskaintzak

➡ Kimikan lizentziaturiko neskak, matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak ematen ditu Beasainen eta Olaberrian, DBH eta DBHO mailako ikasleei. 699398477.

➡ Delineatzaile moduan lan egingo nuke. Esperientziaduna. aranburanga@hotmail.com.

➡ Neska euskalduna eskaintzen da goizetan edozein lanetarako (haurrak zaindu, etxeko lanak egin, saltzaile, garbitzaile...). 607658507.

URRAKI BIDAIAK
OVER Taldea
8 egun edo gehiagoko bidaietan deskontu bereziak
Kale Nagusia 42, behea
Tel./Faxa: 943 80 40 15
BEASAIN
urrakibidai@telefonica.net

LAZKAO
Etxebizitza unifamiliarra eraikitzera goaz lorategiarekin
943 161 032
652 775 741

ATAUN
Etxebizitza bifamiliarra eraikitzera goaz 450 m²-ko lorategiarekin
943 161 032
652 775 741

URBITARTE
tolare
sagardotegia

Txotx denboraldia zabalik
Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN



## Zaldibian 1952ko jaunartzea

Anjelita Garmendiak utzitako argazkia da honakoa. 1952. urteko maiatzaren 22an Zaldibian jaunartzea egin zutenak azaltzen dira bertan.

**Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.**

KORO
FISIOTERAPIA ERREABILITAZIOA
Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

OTEÑE ERRETEGIA
Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabean
Larraitz bidea GAINTZA ☎ 943 88 98 48

VOLVO
LAND ROVER
ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

Iñausti
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

PSIKOLOGI KLINIKOA
APG
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95
AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

UNTXUNDEI garajea
OSINALDE karrozategia
☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

**URDANETA EP**
Intxausti Plaza z/g.
Tlfnoa.: **943 88 27 80**
Fax: 943 16 18 16
012279aa@hezkuntza.net

**OIANGUREN BHI**
Altamira Auzoa z/g.
Tlfnoa.: **943 88 08 62**
Fax: 943 16 41 21
012282aa@hezkuntza.net











# ORDIZIAKO ESKOLA PUBLIKOA

## Aukeratu zeurea guztiona

**HAUR HEZKUNTZA**

**LEHEN HEZKUNTZA**

**DBH**

**BATXILERGOAK**

**HEZIKETA ZIKLOAK**




**3 eraikin**
**1 proiektu**

*Urdaneta - Oianguren eskola euskalduna, anitza eta parte hartzea bultzatzen duena da.*
*Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoan oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuz.*






**SILVIAMIRASCASASAYAS**
ODONTOLOGOA




SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA

Urtebete egin dugu gure zentru berrian, behar guztiak asetzeko erabat hornituirik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi aurreratuenak zure esku** jarriz, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai **inplantologi, estetika edota zirugi mailan.**

**Erabateko hortz klinika integratua.**

# SMC

## ERABATEKO HORTZ KLINIKA INTEGRATUA

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK





Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



**TEL./FAX: 943 88 92 87**
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)